Gipuzkoako Foru Aldundia
Jasangarritasun Departamentua



Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Sostenibilidad

GIPUZKOAKO KOSTALDEKO HONDARTZAK GARBITZEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO PRESKRIPZIO TEKNIKOEN AGIRIA

PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS PARA LA CONTRATACIÓN DEL SERVICIO DE LIMPIEZA DE PLAYAS DEL LITORAL GUIPUZCOANO

AURKIBIDEA

1. **KONTRATUAREN AURREKARIAK ETA JUSTIFIKAZIOA**
2. **PLEGUAREN ETA KONTRATUAREN XEDEA**
3. **ARAUBIDE JURIDIKOA ETA ARAUDI APLIKAGARRIA**
4. **ZERBITZUAREN LURRALDE ETA DENBORA-EREMUA**
   - 4.1. Jarduketa-eremua
   - 4.2. Zerbitzuaren egutegia eta faseak
5. **ZERBITZUAN SARTUTAKO PRESTAZIOAK ETA LANAK**
   - 5.1. Zerbitzuaren eduki orokorra eta irismena
   - 5.2. Garbiketa lanak
   - 5.3. Hondarren berdinketak
   - 5.4. Paperontziak jarri eta kudeatzea
6. **ZERBITZUAREN GARAPENA: MAIZTASUNAK ETA ORDUTEGIAK**
   - 6.1. Xedapen orokorrak
   - 6.2. Zerbitzua emateko faseak
   - 6.3. Garbiketa-lanen gutxieneko maiztasuna
   - 6.4. Zerbitzua emateko ordutegiak
   - 6.5. Zerbitzua emateko faseen deskribapena
7. **GIZA BALIABIDEAK: ANTOLAKETA ETA ESKAKIZUNAK**
   - 7.1. Xedapen orokorrak
   - 7.2. Kontratuaren arduraduna
   - 7.3. Gutxieneko langile kopurua faseka
   - 7.4. Gaitasunak
   - 7.5. Langileen uniformea eta ekipamendua
   - 7.6. Gorabeheren eta ordezkapenen kudeaketa
   - 7.7. Langileen eta organigramaren jakinarazpena
8. **BALIABIDE MATERIALAK**
   - 8.1. Xedapen orokorrak
   - 8.2. Gutxieneko baliabide materialak
   - 8.3. Baliabide materialen antolaketa
   - 8.4. Baliabideen mantentzea eta garbiketa
   - 8.5. Instalazio finkoak
9. **KONTRATUAREN JARRAIPENA ETA KONTROLA EGITEKO INFORMAZIO-SISTEMAK**
   - 9.1. Informazio-sistema

ÍNDICE

1. **ANTECEDENTES Y JUSTIFICACIÓN DEL CONTRATO**
2. **OBJETO DEL PLIEGO Y DEL CONTRATO**
3. **RÉGIMEN JURÍDICO Y NORMATIVA APLICABLE**
4. **ÁMBITO TERRITORIAL Y TEMPORAL DEL SERVICIO**
   - 4.1. Ámbito de actuación
   - 4.2. Calendario y fases del servicio
5. **PRESTACIONES Y OPERACIONES INCLUIDAS EN EL SERVICIO**
   - 5.1. Contenido general y alcance del servicio
   - 5.2. Tareas de limpieza
   - 5.3. Nivelación de arenas
   - 5.4. Colocación y gestión de papeleras
6. **DESARROLLO DEL SERVICIO: FRECUENCIAS Y HORARIOS**
   - 6.1. Consideraciones generales
   - 6.2. Fases de prestación del servicio
   - 6.3. Frecuencias mínimas de limpieza
   - 6.4. Horarios de prestación
   - 6.5. Descripción de las fases de prestación
7. **MEDIOS HUMANOS: ORGANIZACIÓN Y REQUISITOS**
   - 7.1. Consideraciones generales
   - 7.2. Responsable del contrato
   - 7.3. Dotación mínima de personal por fases
   - 7.4. Cualificaciones
   - 7.5. Uniformidad y dotaciones del personal
   - 7.6. Gestión de eventualidades y sustituciones
   - 7.7. Comunicación de personal y organigrama
8. **MEDIOS MATERIALES**
   - 8.1. Disposiciones generales
   - 8.2. Medios materiales mínimos
   - 8.3. Organización de medios materiales
   - 8.4. Mantenimiento y limpieza de los medios
   - 8.5. Instalaciones fijas
9. **SISTEMAS DE INFORMACIÓN PARA EL SEGUIMIENTO Y CONTROL DEL CONTRATO**
   - 9.1. Sistemas de información

9.2. Makinen eta ibilgailuen geolokalizazioa
9.3. Lanen Zuzendaritzaren sarbidea
9.4. Aldizkako txostenak

10. HONDAKINEN KUDEAKETA ETA AZKEN HELMUGA
10.1. Enpresa esleipendunaren eginkizunak hondakinen araudi-esparruan
10.2. Helmugako instalazioak
10.3. Hondakinen trazabilitatea
10.4. Administrazio-erregistroa

11. INGURUMENAREN BABESA ETA ITSASERTZEAN ESKU HARTZEKO IRIZPIDEAK

12. SEGURTASUNA ETA OSASUNA KONTRATUA GAUZATZEAN

13. KALITATEA ETA INGURUMENA KUDEATZEKO SISTEMAK

14. KONTRATUAREN AURREKONTUA ETA ORDAINTZEKO MODUA
14.1. Lizitazioaren aurrekontua
14.2. Ordaintzeko modua

I. ERANSKINA JARDUKETA-EREMUAK

II. ERANSKINA: HONDARTZETATIK ATERA BEHARREKO HONDAKINEN TIPOLOGIA.

III. ERANSKINA: HONDARTZETAN ANIMALIAK AGERTZEAREN AURREKO JARDUKETA PROTOKOLOA

IV. ERANSKINA: HONDARTZEN GARBIKETA ZERBITZUAN BILDUTAKO HONDAKINEN HISTORIKOA

V. ERANSKINA: 2026AN JARRITAKO PAPERONTZIEN ZERRENDA

9.2. Geolocalizaciones de maquinaria y vehículos
9.3. Acceso de la Dirección de los trabajos
9.4. Informes periódicos

10. GESTIÓN DE RESIDUOS Y DESTINO FINAL
10.1. Roles de la adjudicataria en el marco de la normativa de residuos
10.2. Instalaciones de destino
10.3. Trazabilidad de los residuos
10.4. Registro administrativo

11. PROTECCIÓN AMBIENTAL Y CRITERIOS DE INTERVENCIÓN EN EL LITORAL

12. SEGURIDAD Y SALUD EN LA EJECUCIÓN DEL CONTRATO

13. SISTEMAS DE GESTIÓN DE CALIDAD Y MEDIO AMBIENTE

14. PRESUPUESTO DEL CONTRATO Y FORMA DE ABONO
14.1. Presupuesto de licitación
14.2. Forma de abono

ANEXO I: ÁMBITOS DE ACTUACIÓN

ANEXO II: TIPOLOGÍA DE RESIDUOS SUSCEPTIBLES DE SER RETIRADOS DE LAS PLAYAS.

ANEXO III: PROTOCOLO DE ACTUACIÓN ANTE LA PRESENCIA DE ANIMALES EN LAS PLAYAS

ANEXO IV: HISTÓRICO DE RESIDUOS RECOGIDOS EN EL SERVICIO DE LIMPIEZA DE PLAYAS

ANEXO V: RELACIÓN DE PAPELERAS INSTALADAS EN 2026

GIPUZKOAKO KOSTALDEKO HONDARTZAK GARBITZEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO PRESKRIPZIO TEKNIKOEN AGIRIA

1. KONTRATUAREN AURREKARIAK ETA JUSTIFIKAZIOA

Gipuzkoako kostaldeko hondartzak balio ekologiko, sozial eta ekonomiko handiko kostaldeko hareatzak dira. Lehenik eta behin, dinamika biologiko berezia duten naturguneak dira, eta, gizakiaren eragina handiena jasan dutenetan ere, fauna- eta flora-espezie ugariren habitata osatzen dute; era berean, oso hauskorrak diren ekosistemak dituzte. Aldi berean, itsas olatuen aurrean kostaldearen babes natural gisa jarduten dute. Bestalde, gune horietan herritarren aisialdiko, kiroleko eta kulturako eguneroko jarduerak garatzen dira, eta, aldi berean, turismo-sektorearentzako ekipamendu gisa ere funtzionatzen dute.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, Jasangarritasun Departamentuaren bidez, kostaldearen kudeaketa eta kontserbazioaren arloan udalerriei laguntza subsidiarioa emateko eskumenak baliatzen ditu, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 36. artikuluan, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legean eta Gipuzkoako Lurralde Historikoan aplikatzekoa den foru-araudian xedatutakoaren arabera. Eskumen horiek baliatuz, Foru Aldundiak 1985. urtetik kudeatzen ditu Hondarribia, Orio, Zarautz, Getaria, Zumaia, Deba eta Mutrikuko hondartzen garbiketa eta mantentze-lanak.

Testuinguru horretan, Jasangarritasun Departamentuak beharrezkotzat jotzen du Gipuzkoako kostaldeko hondartzak garbitzeko zerbitzua kontratatzea, kontratuaren esparruan garbitasun-, osasun-, erabilera publikoko, ingurumen-kontserbazioko eta ohiko mantentze-lanetako baldintza egokiak bermatzeko.

Lizitazio honen oinarria da zerbitzu jarraitua, nahikoa eta teknikoki egokia izatea, hondartzen erabilera-intentsitate desberdinei, urtaroen araberako aldakortasunari eta kostaldeko ingurunearen berezko gorabeherei erantzuteko gai izango dena.

PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS PARA LA CONTRATACIÓN DEL SERVICIO DE LIMPIEZA DE PLAYAS DEL LITORAL GUIPUZCOANO

1. ANTECEDENTES Y JUSTIFICACIÓN DEL CONTRATO

Las playas son arenales costeros que cuentan con una importante función ecológica, social y económica. En primer lugar, son espacios naturales con una dinámica biológica característica y que constituyen, aún las más antropizadas, el hábitat de diversas especies de fauna y de flora; asimismo, presentan ecosistemas de gran fragilidad. Al mismo tiempo, constituyen una defensa natural de la costa ante el oleaje marino. Además, estos espacios acogen, entre otros, los usos ligados al desarrollo de actividades cotidianas de ocio, deportivas y culturales de la ciudadanía, a la vez que soportan la condición de equipamientos del sector turístico.

La Diputación Foral de Gipuzkoa, a través de su Departamento de Sostenibilidad, ejerce competencias de asistencia subsidiaria a los municipios en materia de gestión y conservación del litoral, conforme a lo dispuesto en el artículo 36 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local; en la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi; y en la normativa foral aplicable del Territorio Histórico de Gipuzkoa. En el ejercicio de dichas competencias, la Diputación gestiona desde 1985 la limpieza y mantenimiento de las playas de Hondarribia, Orio, Zarautz, Getaria, Zumaia, Deba y Mutriku.

En este contexto, el Departamento de Sostenibilidad considera necesaria la contratación del servicio de limpieza de las playas del litoral de Gipuzkoa, con el fin de garantizar condiciones adecuadas de limpieza, salubridad, uso público, conservación ambiental y mantenimiento ordinario en el ámbito del contrato.

La presente licitación se fundamenta en la necesidad de disponer de un servicio continuado, suficiente y técnicamente adecuado, capaz de responder a las distintas intensidades de uso de las playas, a la variabilidad estacional y a las incidencias propias del medio litoral.

2. PLEGUAREN ETA KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xedea da Gipuzkoako kostaldeko hondartzak garbitzeko zerbitzua ematea, Donostiako udalerriko hondartzak salbuetsita.

Preskripzio Teknikoen Agiri honen (PTA) xedea da Gipuzkoako kostaldeko hondartzak garbitzeko zerbitzua kontratatzeko eta ondoren gauzatzeko bete beharreko baldintza teknikoak ezartzea.

Horretarako, kontratuak barne hartuko ditu kontratuaren eremuan garbitasuna, hari lotutako oinarrizko mantentze-lanak, hondakinen bilketa, erretiratzea eta kudeaketa egokiak bermatzeko behar diren jarduketa guztiak, betiere aplikatu beharreko sektore-araudia betez. Zerbitzua emateko erabiliko diren lan-metodoek, jardun-prozedurek, produktuek eta makineriak ingurumena errespetatu beharko dute, eta kontratuari atxikitako langileen segurtasuna eta osasuna bermatu beharko dituzte.

Kontratu honen xede diren lanak 90680000-7 CPV kodearen barruan sailkatzen dira: Hondartzak garbitzeko zerbitzua.

3. ARAUBIDE JURIDIKOA ETA ARAUDI APLIKAGARRIA

Kontratua azaroaren 8ko 9/2017 Legeak, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoak, eta sektore publikoko zerbitzu-kontratuei aplikatzekoa den kontratazio publikoaren gainerako garapen-araudiak arautuko dute.

Era berean, aplikagarriak izango dira Kostaldeei buruzko uztailaren 28ko 22/1988 Legea, urriaren 10eko 876/2014 Errege Dekretua, zeinaren bidez Kostaldeen Erregelamendu Orokorra onartzen baita, Ekonomia Zirkular baterako Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legea, eta Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legea.

Esleipendunak aipatutako araudia eta kontratuak indarrean dirauen bitartean aplikagarri izan daitekeen gainerako xedapen oro osorik bete beharko ditu.

2. OBJETO DEL PLIEGO Y DEL CONTRATO

El objeto del presente contrato es el servicio de limpieza de las playas del litoral de Gipuzkoa, exceptuando las del municipio de Donostia / San Sebastián.

El presente Pliego de Prescripciones Técnicas (PPT) tiene por objeto establecer las condiciones técnicas que han de regir la contratación y posterior ejecución del servicio de limpieza de las playas del litoral de Gipuzkoa.

A tal efecto, el contrato comprenderá las operaciones necesarias para garantizar la adecuada limpieza, mantenimiento básico asociado, retirada y gestión de residuos en los ámbitos incluidos en el contrato, todo ello con sujeción a la normativa sectorial aplicable. La prestación del servicio deberá ejecutarse mediante métodos de trabajo, prácticas operativas, productos y maquinaria respetuosos con el medio ambiente y que garanticen la protección de la seguridad y salud del personal adscrito al contrato.

La nomenclatura de clasificación de los trabajos objeto el presente contrato corresponde al código CPV 90680000-7 Servicio de limpieza de playas.

3. RÉGIMEN JURÍDICO Y NORMATIVA APLICABLE

El contrato se regirá por la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, del Contratos del Sector Público, y por la restante normativa de desarrollo en materia de contratación pública que resulte aplicable a los contratos de servicios del sector público.

Asimismo, resultarán de aplicación la Ley 22/1988, de 28 de julio, de Costas, el Real Decreto 876/2014, de 10 de octubre, por el que se aprueba el Reglamento General de Costas, la Ley 7/2022, de 8 de abril, de residuos y suelos contaminados para una economía circular, la Ley 31/1995, de 8 de noviembre, de Prevención de Riesgos Laborales.

La contratista vendrá obligada al cumplimiento íntegro de la normativa citada, así como cualquiera otra disposición que resulte de aplicación durante la vigencia del contrato.

4. ZERBITZUAREN LUURALDE- ETA DENBORA-EREMUA

4.1. JARDUKETA-EREMUA

Kontratu honen lurralde-eremua Gipuzkoako kostaldeko hondartza nagusiek osatzen dute, Donostiako udalerriko hondartzak izan ezik; izan ere, udal horren eskumenen arabera, haien kudeaketa Udalari berari dagokio. Hondartzak hiru taldetan sailkatzen dira, erabilera-mailaren, irisgarritasunaren eta behar duten garbiketa-maiztasunaren eta -intentsitatearen arabera.

- I. taldea: Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren Bainu Eremuen Kontrol Sanitarioko Programan sartuta dauden hondartzak. Hiri- edo hiri-inguruko eremuetan kokatuta daude, udako denboraldian erabiltzaile ugari izaten dituzte eta zerbitzu-eskaintza zabala dute. Hondartza horietan garbiketa mekanikoa eta eskuzkoa maiztasun handienarekin egingo da.

- II. taldea: Aipatutako Kontrol Programatik kanpo dauden hondartzak, hiri-guneetatik gertu kokatuak eta erabiltzaile-kopuru ertaina dutenak. Garbiketa-maiztasuna I. taldekoa baino txikiagoa eta bereizia izango da, eta, nolanahi ere, garbitasun- eta osasun-maila egokiak bermatuko dira. Hondarraren baheketa mekanikoa ez da egingo, sarbide-baldintzek ez dutelako horretarako aukerarik ematen.

- III. taldea: Izaera naturalagoko hondartzak, hiri-guneetatik urrun daudenak eta makina astunentzako sarbide mugatua dutenak. Garbiketa noizean behin egingo da, eta eskuz soilik. Hondarraren baheketa mekanikoa ere baztertuta geratzen da sarbide-baldintzen ondorioz.

Jarraian agertzen diren tauletan jasotzen dira kontratu honetan sartzen diren hondartzak, aurreko taldekatzearen arabera.

4. ÁMBITO TERRITORIAL Y TEMPORAL DEL SERVICIO

4.1. ÁMBITO DE ACTUACIÓN

El ámbito territorial del presente contrato son las principales playas del litoral guipuzcoano, exceptuando las del municipio de Donostia/San Sebastián, cuya gestión corresponde al propio Ayuntamiento en virtud de sus competencias municipales. Las playas se clasifican en 3 grupos, de acuerdo con las frecuencias e intensidades de limpieza que requieren por su nivel de uso y accesibilidad

- Grupo I: playas incluidas en el Programa de Control Sanitario de las Zonas de Baño del Departamento de Salud del Gobierno Vasco, situadas en entornos urbanos o periurbanos, con elevada afluencia de usuarios en temporada estival y amplia oferta de servicios. Son objeto de limpieza mecanizada y manual con la máxima frecuencia.

- Grupo II: playas fuera del citado Programa de Control, próximas a núcleos urbanos, con afluencia moderada de usuarios. La frecuencia de limpieza será menor y diferenciada respecto al Grupo I, garantizando en todo caso unos estándares mínimos de limpieza y salubridad. El cribado mecánico queda excluido por las condiciones de acceso.

- Grupo III: playas de carácter más natural, apartadas de núcleos urbanos, con acceso limitado para maquinaria pesada. La limpieza se realizará de forma puntual y exclusivamente de forma manual. El cribado mecánico queda excluido por las condiciones de acceso.

Se recogen en las siguientes tablas las playas incluidas en el contrato para cada grupo descrito:

I. TALDEA - HONDARTZA GRUPO I — PLAYA	UDALERRIA MUNICIPIO
Saturraran	Mutriku
Portua-Ondargain	Mutriku
Ondarbeltz	Mutriku
Santiago	Deba
Lapari	Deba
Itzurun	Zumaia
Santiago	Zumaia
Gaztetape (*)	Getaria
Malkorbe	Getaria
Zarautz	Zarautz
Antilla	Orio
Hondarribia	Hondarribia
(*) Gaztetapeko hondartza baheketa mekanikotik kanpo geratzen da, makinak sartzeko mugak dituelako. Garbiketa-lanak eskuz baino ez dira egingo hareatza horretan*. / La playa de Gaztetape queda excluida del cribado mecánico por limitaciones de acceso de la maquinaria. Las labores de limpieza se realizarán en este arenal exclusivamente de forma manual.*	

II-. TALDEA - HONDARTZA GRUPO II — PLAYA	UDALERRIA MUNICIPIO
Zazpi hondartzak / Siete Playas	Mutriku
Burumendi	Mutriku
Inpernupe	Zumaia
Oribarzar	Orio
Kai Zahar	Hondarribia

III. TALDEA - HONDARTZA GRUPO III — PLAYA	UALERRIA MUNICIPIO
Algorri	Zumaia
Alkolea	Mutriku

Hondartza bakoitzeko jarduketa-eremuaren barruan sartzen dira egungo eta etorkizunean eraiki daitezkeen sarbide guztiak (arrapalak, atsedenlekuak eta eskailerak). Kontratutik kanpo geratzen da hondartzetan edo haien inguruan kokatutako taberna, txiringito, izozki-postu edo antzeko establezimenduek sortutako hondakinak biltzea eta kentzea.

El ámbito de actuación en cada playa incluye los accesos (rampas, descansillos y escaleras) actuales y futuros a las citadas playas. Quedan excluidos del contrato la retirada de residuos generados en bares, chiringuitos y puestos de helados o similares ubicados en las playas o próximos a ellas.

Kontratu honen ondorioetarako, aurreko hondartza gehienen jarduketa-eremu geografikoa erantsitako dokumentazio grafikoan eta idatzian zehazten da, I. eranskinean – Jarduketa-eremuak.

El límite geográfico de actuación de la mayoría de las playas anteriores, a los efectos de este contrato, queda reflejado en la documentación gráfica y escrita que se acompaña como documentación anexa, ANEXO I. Ámbitos de actuación.

4.2. ZERBITZUAREN EGUTEGIA ETA FASEAK

Zerbitzua jasangarritasunaren eta ingurumenarekiko errespetura bideratuta diseinatu da, baliabide pertsonalak eta materialak modu eraginkor eta arrazoizkoan kudeatuz erabiltzaileen gogobetetze-mailarik handiena lortzeko.

Preskripzio Teknikoen Agiri honetan deskribatutako lanak urte osoan zehar egingo dira, honako fase hauetan antolatuta:

4.2. CALENDARIO Y FASES DEL SERVICIO

El servicio se ha diseñado con orientación a la sostenibilidad y al respeto del medio ambiente, buscando maximizar el nivel de satisfacción de los usuarios mediante una gestión eficiente y racional de los recursos humanos y materiales.

Los trabajos descritos en el presente Pliego de Prescripciones Técnicas se ejecutarán a lo largo del año, organizados en las siguientes fases: :

FASEA FASE	PERÍODO
Negukoa / Invernal	Urriak 1 – apirilak 30 1 de octubre – 30 de abril
Udaurrekoa / Pre-estival	Maiatzak 1 – maiatzak 31 1 de mayo – 31 de mayo
Udakoa / Estival	Ekainak 1 – irailak 30 1 de junio – 30 de septiembre
Udaren ondorengoa / Post-estival	Urriak 1 – urriak 31 1 de octubre – 31 de octubre
Aste Santua eta Pazko Astea Semana Santa y Semana de Pascua	Astelehen Santutik Berpizkunde igandearen ondorengo 1º larunbatera, biak barne Desde Lunes Santo al 1º sábado tras del Domingo de Resurrección, ambos incluidos
Aparteko lanegunen poltsa Bolsa de jornadas extraordinarias	Urtean 5 eguneko poltsa, jaiegunetan (zubiak, etab) aparteko garbiketak egiteko. Bolsa de 5 días al año, destinada a limpiezas extraordinarias en periodos festivos (puentes, etc.)
Ezohiko lanak Trabajos extraordinarios	Aukerakoak lanen Zuzendaritzarentzat Opcional por parte de la Dirección de los trabajos.

Ezohiko lanak enkargatzeko aukera ezartzen da. Lan horiek kontratuaren xedeari lotutako noizbehinkako prestazioak dira, eta hondartzen garbiketarekin lotutako unean uneko edo noizbehinkako beharrei erantzuteko dira, hala nola, ezohiko ekaitzaldiei, arribazoiei, zetazeo hanien itsasertzeratzeei, isurketei, hondakinen aparteko metaketei edo zerbitzuaren indargarri zehatzei

Se establece la posibilidad de encargar trabajos extraordinarios, que constituyen una prestación eventual vinculada al objeto del contrato, destinada a atender a necesidades puntuales u ocasionales relacionadas con la limpieza de playas, tales como episodios extraordinarios de temporales, arribazones, varamientos de grandes cetáceos, vertidos, acumulaciones excepcionales de residuos

erantzuteko, lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren dimentsionamenduan aurreikusitako urteko ordu-mugaraino (langileak: 120 ordu laneguneta eta 60 ordu igande edo jaiegunetan; makinaria: 250 ordu traktorea eta 120 ordu gainontzeko makinariarentzako). Enkargu gehigarri horien agiri honen 5.2.3. atalean xedatutakoaren arabera izapidetuko dira. Nolanahi ere, GFAk beretzat gordetzen du apartako lan horietarako aurreikusitako zuzkidura ekonomikoa osorik edo zati batean gauzatzeko eskubidea, eta horrek ez du inolako eskubiderik sortzen esleipendunaren alde, gauzatu gabeko zenbatekoengatik.

Ezohiko lanen poltsa honek ez du kontratu-aldaketaren izaerarik, eta horrelakoak, bidezkoak direnean, dagokion kontratu-aldaketa espedientearen bidez izapidetuko dira.

Ezohiko lanen poltsa honen aplikazio-eremua zehazteko, adierazi behar da poltsa hori prestazioaren behar puntual edo noizbehinkakoei erantzuteko izango dela, eta, aldiz, aurreikusitako aldaketak prestazioaren izaera egonkor edo egiturazkoko egokitzapenetarako gordeko direla.

5. ZERBITZUAN SARTUTAKO PRESTAZIOAK ETA LANAK

5.1. ZERBITZUAREN EDUKI OROKORRA ETA IRISMENA

5.1.1.Zerbitzuaren irismena

Kontratuaren barruan sartzen dira I. eranskinean zehaztutako jarduketa-eremuko hondartzetan garbiketa-, mantentze- eta kontserbazioari laguntzeko lanak egitea, agiri honetan ezarritako baldintzen eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Trantsizio Ekologikoko Zuzendaritza Nagusiaren (aurrerantzean, lanen Zuzendaritza) jarraibideen arabera.

Kontratuaren prezioaren barruan ulertuko dira zerbitzua behar bezala emateko beharrezkoak diren giza baliabide eta baliabide material guztiak, besteak beste: langileak, makineria propioa edo alokatua, tresnak, erregaia, material kontsumigarriak, garraioa, baimenak eta lizentziak; Aseguruak, mantentze-lanak, konponketak eta lanak gauzatzearekin lotutako gainerako kostu guztiak.

o refuerzos concretos del servicio, hasta el límite anual de horas previsto en el dimensionamiento del presupuesto base de licitación (personal: 120 horas en días laborables y 60 horas en domingos y festivos; maquinaria: 250 horas tractor y 120 horas para el resto de maquinaria). Estos encargos adicionales se tramitarán conforme a lo dispuesto en el apartado 5.2.3. del presente Pliego. En todo caso, la DFG se reserva el derecho a ejecutar total o parcialmente la dotación económica prevista para estos trabajos extraordinarios, sin que ello genere derecho alguno a compensación a favor de la adjudicataria por las cantidades no ejecutadas.

Esta bolsa de trabajos extraordinarios no tiene la consideración de modificación contractuales, los cuales se tramitarán, cuando procedan, mediante el correspondiente expediente de modificación contractual.

A efectos de delimitar el ámbito de aplicación de esta bolsa de trabajos extraordinarios, éstos estarán destinados a atender necesidades puntuales u ocasionales de la prestación, mientras que las modificaciones previstas quedan reservadas a las adaptaciones de carácter estable o estructural de la prestación.

5. PRESTACIONES Y OPERACIONES INCLUIDAS EN EL SERVICIO

5.1. CONTENIDO GENERAL Y ALCANCE DEL SERVICIO

5.1.1. Alcance del servicio

El contrato comprende la ejecución de los trabajos de limpieza, mantenimiento y apoyo a la conservación de las playas incluidas en el ámbito de actuación definido en el Anexo I, de acuerdo con las condiciones establecidas en este pliego y las instrucciones de la z de Transición Ecológica de la Diputación Foral de Gipuzkoa (en adelante, la Dirección de los trabajos).

Se consideran incluidos en el precio del contrato todos los medios humanos y materiales necesarios para la correcta prestación del servicio, incluyendo personal, maquinaria propia o alquilada, herramientas, combustible, consumibles, transporte, permisos, licencias, seguros, mantenimiento, reparaciones y cualquier otro coste asociado a la ejecución de los trabajos.

Kontratua lanen Zuzendaritzak zuzendu, gainbegiratu eta ikuskatuko du. Hark emandako jarraibideak nahitaez bete beharko ditu esleipendunak, kontratazio publikoaren araudiak ezarritako mugen barruan, kontratua behar bezala gauzatzea bermatzeko beharrezkoa den guztian.

La ejecución del contrato se desarrollará bajo la dirección, supervisión e inspección de la Dirección de los trabajos. Las instrucciones emitidas por ésta serán obligatorias para la adjudicataria en todo aquello que resulte necesario para garantizar la correcta ejecución del contrato, dentro de los límites establecidos por la normativa de contratación pública.

5.1.2.Hondakinen kudeaketa

Enpresa esleipenduna arduratuko da jarduketa-eremuan dauden hondartza eta eremu guztietako hondakinak bildu, jaso eta garraiatzeaz, haien jatorria, izaera, bolumena edo arriskugarritasuna edozein dela ere, II. eranskinean zehaztutako hondakinak barne.

Era berean, zerbitzurako jarritako paperontzietan eta edukiontzietan bildutako hondakinak biltzea eta garraiatzea ere haren ardura izango da.

Hondakinen kudeaketa, garraioa, trazabilitatea eta azken helmuga agiri honetako 10. kapituluan ezarritakoaren arabera egingo dira.

5.1.2.Gestión de residuos

La empresa adjudicataria será responsable de la recogida, retirada y transporte de todos los residuos presentes en las playas y áreas incluidas en el ámbito de actuación, independientemente de su origen, naturaleza, volumen o peligrosidad, incluyendo los residuos definidos en el Anexo II.

Asimismo, será responsable de la recogida y transporte de los residuos depositados en las papeleras y contenedores instalados para la prestación del servicio.

La gestión, transporte, trazabilidad y destino final de los residuos se ajustarán a lo dispuesto en el Capítulo 10 del presente Pliego.

5.1.3.Animaliak jasotzea

Esleipendunaren ardura izango da, edo hala badagokio, arlo horretan eskumena duten agintariekin elkarlanean jardungo du, jarduketa-eremuan animalia biziak edo hilak agertzeagatik egin beharreko jarduketetan, lehorreratutako zetazeo handiak barne. Horretarako, III. eranskinean jasotako Hondartzetan Animaliak Agertzearen aurreko Jarduketa Protokoloa, lanen Zuzendaritzaren jarraibideak eta, hala badagokio, agintaritza eskudunak emandako gainerako jarraibideak beteko dira.

Esleipendunak dagokion espeziearen eta egoeraren arabera egin beharreko jakinarazpen eta abisu guztiak egingo ditu, ahalik eta arinen jardunez, eta ez du babestutako animaliarik manipulatuko agintaritza eskudunaren berariazko baimenik gabe.

5.1.3.Retirada de animales

La adjudicataria será responsable o, en su caso colaborará con autoridades competentes en la materia, en las actuaciones derivadas de la presencia de animales vivos o muertos en el ámbito de actuación, incluidos grandes cetáceos varados, conforme al Protocolo de Actuación ante la Presencia de Animales en las playas que se incluye en el Anexo III, a las instrucciones dictadas por la Dirección de los trabajos y demás instrucciones de la autoridad competente en su caso.

La adjudicataria realizará las comunicaciones y avisos exigidos en función de la especie y situación detectada, actuando con la mayor diligencia posible y absteniéndose de manipular animales protegidos sin autorización expresa de la autoridad competente.

5.1.4.Hondakinei buruzko informazioa eta jarraipena

Esleipendunak udalerri bakoitzean bildutako hondakin-kantitateak erregistratu eta jakinarazi beharko ditu, kudeatutako frakzioak bereizita.

5.1.4.Información y seguimiento de residuos

La adjudicataria deberá registrar y comunicar las cantidades de residuos recogidas en cada municipio, diferenciando las distintas fracciones gestionadas.

Era berean, urtean bi hondakin-karakterizazio kanpaina egingo ditu, lanen Zuzendaritzak zehaztutako aldietan, honako bereizketa honekin:

- Itsasotik ingurunetik datozen hondakinak;
- Hondartzen erabilera ludikoak sortutako hondakinak.

Emaitzak lanen Zuzendaritzak ezarritako formatuan eta epean aurkeztu beharko dira.

5.1.5. Azpiegituren babesa eta erantzukizuna

Lanak egitean, saihestu egin beharko da azpiegiturei, instalazioei, hiri-altzariei, sarbideei, laguntza-eremuei, lurpeko instalazioei eta hirugarrenen ondasunei kalterik eragitea. Arreta berezia jarriko zaio hareatzaren azpian egon daitezkeen lurpeko azpiegiturei, hala nola hoditeriei, pasabideei edo zerbitzu-instalazioei.

Esleipendunak bere gain hartuko ditu zerbitzua ematean eragindako kalteen ondoriozko erantzukizunak, bai eta konponketa edo ordezkapenaren kostu guztiak ere.

5.1.6. Gorabeherei erantzuteko gehieneko epeak

Esleipendunak beharrezko giza baliabideak, baliabide materialak eta antolaketa-baliabideak izan beharko ditu, kontratuaren xede diren hondartzen garbiketa- eta mantentze-lanek iraun bitartean sor daitekeen edozein gorabeherari erantzuteko, gorabeheraren izaeraren eta larritasunaren araberako erantzun egokia bermatuz.

Horretarako, erantzuteko gehieneko denbora hauek ezartzen dira; erantzuteko denboratzat hartuko da lanen Zuzendaritzak edo, hala badagokio, larrialdi-zerbitzuek edo agintaritza eskudunek gorabehera jakinarazten dutenetik hura ebaluatzeko eta jarduteko behar diren bitartekoak tokira iritsi arte igarotako denbora.

a) Erabiltzaileen segurtasunerako edo osasunerako arriskutsuak izan daitezkeen gorabeherak, hala nola hondakin arriskutsuak, objektu zorrotzak edo ebakitzaileak, arriskutsuak

Asimismo, realizará dos campañas anuales de caracterización de residuos, en los periodos que determine la Dirección de los trabajos, diferenciando entre:

- Residuos procedentes del medio marino.
- Residuos generados por el uso recreativo de las playas.

Los resultados deberán presentarse en el formato y plazo establecidos por la Dirección de los trabajos.

5.1.5. Protección de infraestructuras y responsabilidad

Los trabajos deberán ejecutarse evitando cualquier afección a infraestructuras, instalaciones, mobiliario, accesos, áreas de apoyo, sistemas enterrados y bienes de terceros. Se prestará especial atención a la existencia de infraestructuras enterradas bajo los arenales, tales como conducciones, pasarelas o instalaciones de servicios.

La adjudicataria responderá de los daños ocasionados durante la prestación del servicio y asumirá íntegramente los costes de reparación o reposición.

5.1.6. Tiempos máximos de respuesta ante incidencias

La adjudicataria deberá disponer de los medios humanos, materiales y organizativos necesarios para atender, durante el periodo de prestación del servicio, cualquier incidencia relacionada con la limpieza y el mantenimiento de las playas objeto del contrato, garantizando una respuesta adecuada en función de la naturaleza y gravedad de la incidencia.

A estos efectos, se establecen los siguientes tiempos máximos de respuesta, entendiéndose por tiempo de respuesta el transcurrido desde la comunicación de la incidencia por la Dirección de los trabajos o, en su caso, por los servicios de emergencia o autoridades competentes, hasta la llegada al lugar de los medios necesarios para su evaluación y actuación:

a) Incidencias que supongan un riesgo para la seguridad o la salud de las personas usuarias, tales como la presencia de residuos peligrosos, objetos punzantes o cortantes, hidrocarburos o sustancias

izan daitezkeen hidrokarburoak edo substantziak, erabilera publikoko eremuetan hildako animalia handiak, segurtasunez ibiltzea eragozten duten elementuak edo antzeko egoerak: berehalako erantzuna, behar diren bitartekoak komunikazioa egin eta berehala mobilizatu beharko dira, eta gehienez ere ordubeteko epean bertaratu, behar bezala justifikatutako salbuespenezko inguruabarrek eragotzi ezean.

b) Garbiketa-zerbitzuarekin zerikusia duten aparteko gorabeherak, hala nola hondakinen isurketak, zabor-pilaketa bereziak, landare-hondakinak lehorreratzea edo pilatzea, animalia txikien lehorreratzeak, itsas jatorriko hondakinak agertzea edo jarduketa espezifikoa eskatzen duten antzeko beste gorabehera batzuk: jakinarazten denetik gehienez ere 4 orduko epean hastea jarduketa, betiere segurtasun- eta irisgarritasun-baldintzek horretarako aukera ematen badute.

c) Ohiko garbiketa-gorabeherak, hala nola hondakinen metaketa lokalizatuak, garbiketa indartzeko beharra, zerbitzuari lotutako paperontziak edo edukiontziak gainezka egitea, zerbitzuari lotutako elementuak birjartzea edo beste gorabehera arrunt batzuk: jarduketa jakinarazten denetik gehienez 24 orduko epean hastea.

lanen Zuzendaritzak aurreikusitakoez bestelako jarduketa-lehentasunak ezarri ahal izango ditu salbuespenezko inguruabarrak, eguraldi txarra, erabiltzaile asko edo esku hartzeko ordena aldatzea eskatzen duen beste edozein egoera gertatzen direnean. Adjudikaziodunak nahitaez bete beharko ditu jarraibide horiek.

potencialmente peligrosas, animales muertos de gran tamaño en zonas de uso público, elementos que impidan el tránsito seguro u otras situaciones de naturaleza análoga: respuesta inmediata, debiendo movilizar los medios necesarios de forma inmediata tras la comunicación y personarse en el lugar en un plazo máximo de 1 hora, salvo que circunstancias excepcionales debidamente justificadas lo impidan.

b) Incidencias extraordinarias relacionadas con el servicio de limpieza, tales como vertidos de residuos, acumulaciones excepcionales de basuras, arribazones o acumulaciones extraordinarias de restos vegetales, pequeños varamientos, aparición de residuos de origen marino u otras incidencias similares que requieran una actuación específica: inicio de la actuación en un plazo máximo de 4 horas desde la comunicación, siempre que las condiciones de seguridad y accesibilidad lo permitan.

c) Incidencias ordinarias de limpieza, tales como acumulaciones localizadas de residuos, necesidad de refuerzo de limpieza, desbordamiento de papeleras o contenedores asociados al servicio, reposición de elementos vinculados al servicio u otras incidencias de carácter ordinario: inicio de la actuación en un plazo máximo de 24 horas desde su comunicación.

La Dirección de los trabajos podrá establecer prioridades de actuación distintas a las previstas cuando concurran circunstancias excepcionales, episodios meteorológicos adversos, elevada afluencia de personas usuarias o cualquier otra situación que aconseje modificar el orden de intervención, siendo dichas instrucciones de obligado cumplimiento para la adjudicataria.

5.2. GARBIKETA-LANAK

5.2.1. Irismena

Garbiketaren barruan sartuko da kontratuan eskatutako garbitasun-, segurtasun-, funtzionaltasun- edo osasun-mailari eragiten dion edozein hondakin, substantzia, objektu edo animalia kentzea, haren jatorria, ezaugarriak, tamaina edo kentzeko zailtasuna edozein direla ere.

5.2. TAREAS DE LIMPIEZA

5.2.1. Alcance

La limpieza comprenderá la retirada de cualquier residuo, sustancia, objeto o animal que afecte a los niveles de limpieza, seguridad, funcionalidad o salubridad exigidos contractualmente, independientemente de su origen, características, dimensiones o dificultad de retirada.

Halaber, honako toki hauetan dauden hondakinak ere bilduko dira:

- Hondartzen mugen barruko kai-muturrak eta egiturak;
- Jarduketa-eremuko eremu harritsuak;
- Ur-bazterreko lerroa eta lehorretik eskuragarri dauden hondakin flotatzaileak.

Hondakinak gaika bilduko dira, haien izaerak horretarako aukera ematen duen guztietan.

5.2.2. Zerbitzuan sartzen diren lanak

Zerbitzuan sartzen dira, gutxienez, honako lan hauek:

- Hondartzak eskuz garbitzea.
- Hondakinen gaikako bilketa.
- Eskailerak, arrapalak, eskailera-buruak eta sarbideak ekortzea.
- Hondarren baheketa mekanikoa edo eskuzkoa.
- Paperontzietan utzitako hondakinak biltzea.
- Paperontziak hornitu, instalatu eta birjartzea.
- Langileen eta bitarteko mekanikoen aparteko errefortzua, beharrezkoa denean.
- Dunak eta babes bereziko espazioak garbitzea.

Algak edo haiei lotutako landaredia modu naturalean metatzea ez da, berez, zikinkeriaren adierazletzat hartuko. Landaredi edo alga horiek soilik kenduko dira lanen Zuzendaritzak berariaz hala agintzen duenean edo segurtasunean, osasungarritasunean edo hondartzaren ohiko erabileran kalte egiaztatuak eragiten dituztenean.

5.2.3. Jarduketa osagarriak ezohiko egoeretan (Ezohiko lanak)

Enpresa esleipendunak jarduketa-plan bat izan beharko du hondakin edo kutsatzaile kopuru handiak eragiten dituzten salbuespenezko egoerei aurre egiteko, hala nola itsas istripuei, ontzien hondoratzeei, isuriei edo itsas kutsadurako gertakariei lotutako egoeretan.

También se incluyen los residuos localizados en:

- Espigones y estructuras situadas dentro de los límites de las playas.
- Zonas rocosas incluidas en el ámbito de actuación.
- Línea de orilla y residuos flotantes accesibles desde tierra.

La recogida se realizará de forma selectiva siempre que la naturaleza de los residuos lo permita.

5.2.2. Trabajos incluidos en el servicio

Se consideran incluidos en el servicio, como mínimo, los siguientes trabajos:

- Limpieza manual de playas.
- Recogida selectiva de residuos.
- Barrido de escaleras, rampas, descansillos y accesos.
- Cribado mecánico o manual de arenas.
- Recogida de residuos depositados en papeleras.
- Suministro, instalación y reposición de papeleras.
- Refuerzo extraordinario de personal y medios mecánicos cuando resulte necesario.
- Limpieza de dunas y espacios de especial protección.

La presencia de acumulaciones naturales de algas o vegetación asociada no se considerará, por sí misma, un indicador de suciedad. Su retirada únicamente se realizará previo requerimiento expreso de la Dirección de los trabajos o cuando generen afecciones acreditadas a la seguridad, salubridad o uso ordinario de la playa.

5.2.3. Actuaciones complementarias en situaciones extraordinarias (trabajos extraordinarios)

La adjudicataria deberá disponer de un plan de actuación para situaciones excepcionales que generen aportaciones masivas de residuos o contaminantes, incluyendo accidentes marítimos, encallamientos, derrames o episodios de contaminación marina.

Ezohiko egoeren ondorioz hondakin kopuru handiak sortzen badira –hala nola denboraleak, itsasaldiak, euri-jasa handiak edo salbuespenezko beste fenomeno batzuk- edo aparteko beste egoera batzuen ondorioz –zetazeo handien lehorreratzea, udako denboralditik kanpoko jendetza handiak, etab -–, lanen Zuzendaritzak enpresa esleipendunari eskatu ahal izango dio beharrezko giza baliabideak eta baliabide materialak esleitzea, garbitasun-baldintza egokiak ahalik eta epe laburrenean berrezartzeko.

Ante la generación de cantidades significativas de residuos como consecuencia de situaciones extraordinarias - tales como temporales, mareas, episodios de lluvias intensas u otros fenómenos de carácter excepcional- u otras situaciones extraordinarias –varamientos de grandes cetáceos, vertidos, arribazones, grandes afluencias fuera de la temporada estival, etc-, la Dirección de los trabajos podrá requerir a la empresa adjudicataria la adscripción de los medios humanos y materiales que resulten necesarios para restablecer, en el menor plazo posible, las condiciones adecuadas de limpieza.

Ezohiko jarduera horiek aurreikusi ezinak direnez eta errepikakorrak ez direnez, urtean ordu-poltsa bat aurreikusi da, inguruabar horietatik erator daitezkeen enkargu gehigarriei erantzuteko, hala badagokio.

Dado el carácter imprevisible y no recurrente de estas actuaciones extraordinarias, se ha previsto una bolsa de horas anuales destinada a atender, en su caso, los encargos adicionales que pudieran derivarse de dichas circunstancias.

Oro har, ez dira ezohiko egoeratzat joko Gipuzkoako kostaldean –batez ere neguan- geratu ohi diren intentsitate arrunteko denboraleak eta fenomeno meteorologikoak, eta esleipendunak bere gain hartu beharko ditu horiei aurre egiteko behar diren jarduketak, kontratuaren betebehar arrunten esparruan.

Con carácter general, no tendrán la consideración de situaciones extraordinarias los temporales o fenómenos meteorológicos de intensidad ordinaria que, de forma habitual y recurrente, se producen –en especial durante el periodo invernal- en la costa guipuzcoana, debiendo la adjudicataria asumir las actuaciones necesarias para hacerles frente en el marco de las obligaciones ordinarias del contrato.

Nolanahi ere, lanen Zuzendaritzari dagokio soilik ezohiko egoera bat dagoela baloratzea eta deklaratzea, bai eta egin beharreko lan osagarrien beharra, irismena eta gauzatze-baldintzak zehaztea ere. Era berean, lanen Zuzendaritzak beretzat gordetzen du apartako lan horietarako aurreikusitako zuzkidura ekonomikoa osorik edo zati batean gauzatzeko eskubidea, eta horrek ez du inolako eskubiderik sortzen esleipendunaren alde, gauzatu gabeko zenbatekoengatik.

En todo caso, corresponderá exclusivamente a la Dirección de los trabajos la apreciación y declaración de la existencia de una situación extraordinaria, así como la determinación de la necesidad, alcance y condiciones de los trabajos adicionales que procedan. Asimismo, la Dirección de los trabajos se reserva el derecho de ejecutar total o parcialmente la dotación económica prevista para estas actuaciones extraordinarias, sin que ello genere derecho alguno de compensación a favor de la adjudicataria por las cantidades no ejecutadas.

Ezohiko lanak osorik edo partzialki ez gauzatzeak ez dio esleipendunari inolako kalte-ordain eskubiderik sortuko, hori eragotzi gabe Administrazioak aurreikusitako poltsaren esparrutik kanpoko beharrei erantzuteko beste tresna juridiko batzuetara jo ahal izatea.

La no ejecución total o parcial de trabajos extraordinarios no generará derecho indemnizatorio alguno a favor de la adjudicataria, sin perjuicio de que la Administración pueda acudir a otros instrumentos jurídicos para necesidades ajenas al alcance de la bolsa prevista.

Ezohiko lanetarako ordu-poltsa hau kontratuan zehar gerta daitezkeen ezohiko egoeretatik eratorri litezkeen enkargu gehigarriei erantzuteko izango da, hala badagokio. Lan horien ordainketa lanen Zuzendaritzaren ardura duen pertsonak berariaz gauzatzeko agintzen duenean bakarrik eta soilik

Esta bolsa de horas destinada trabajos extraordinarios estará, por tanto, destinada a atender, en su caso, los encargos adicionales que pudieran derivarse de circunstancias extraordinarias que puedan acaecer a lo largo del contrato. El abono de estos trabajos procederá

egingo da, enpresa esleipendunak eskainitako unitate-prezioak aplikatuz eta benetan gauzatutako lanak bereizita ziurtatu ondoren.

Ezohiko lanen poltsa honek ez du kontratu-aldaketa izaerarik. Ezohiko lanen poltsa honen aplikazio-eremua zehazteko, adierazi behar da poltsa hori prestazioaren behar puntual edo noizbehinkakoei erantzuteko izango dela, eta, aldiz, aurreikusitako kontratu-aldaketak prestazioaren izaera egonkor eta egiturakozko egokitzapenetarako gordeko direla.

5.2.4. Dunak eta babes bereziko eremuak

Dunen eta babes bereziko eremuen garbiketa eskuz soilik egingo da, eta betiere lanen Zuzendaritzaren jarraibideei jarraituz.

Era berean, enpresa esleipendunak eremu horien zaintza eta oinarrizko mantentze-lanak egingo ditu, Zarauzko Inurritzako Biotopoa salbu. Lan horien artean honako hauek sartzen dira:

- Higadura-prozesuak edo narriadurak detektatzea.
- Mugaketa-zutoinak berriro jartzea edo beren lekuan kokatzea.
- Perimetroko sokak konpontzea edo ordeztea.
- Atzemandako gorabeheren berri lanen Zuzendaritzari ematea.

5.3. HONDARREN BERDINKETAK

5.3.1. Xedea

Oro har, zerbitzuaren barruan ez dira sartuko hondartzetako profil naturalen mugimendu, birbanaketa edo moldaketa sistematikoko jarduketak; une oro errespetatu beharko dira sedimentuen dinamika eta hareatzen bilakaera naturala.

Hala ere, lanen Zuzendaritzak hondarra berdintzeko edo gainazalean birbanatzeko jarduketa puntualak agindu ahal izango ditu, teknikoki beharrezkoak direnean erabiltzaileen

única y exclusivamente cuando la persona responsable de la Dirección de los trabajos ordene expresamente su realización, aplicándose los precios unitarios ofrecidos por la empresa adjudicataria y previa certificación separada de los trabajos efectivamente ejecutados.

Esta bolsa de trabajos extraordinarios no tiene la consideración de modificación contractual. A efectos de delimitar el ámbito de aplicación de esta bolsa de trabajos extraordinarios, éstos estarán destinados a atender necesidades puntuales u ocasionales de la prestación, mientras que las modificaciones previstas quedan reservadas a las adaptaciones de carácter estable o estructural de la prestación.

5.2.4. Dunas y espacios de especial protección

La limpieza de dunas y espacios protegidos se realizará exclusivamente mediante procedimientos manuales y conforme a las instrucciones de la Dirección de los trabajos.

Asimismo, la adjudicataria realizará labores de vigilancia y mantenimiento básico de estos espacios, excepto en el Biotopo de Inurritza en Zarautz:

- Detección de procesos erosivos o deterioros.
- Reposición o recolocación de postes delimitadores.
- Reparación o sustitución de cuerdas perimetrales.
- Comunicación de incidencias detectadas a la Dirección de los trabajos.

5.3. NIVELACIÓN DE ARENAS

5.3.1. Objeto

Con carácter general, la prestación del servicio no incluirá actuaciones sistemáticas de movimiento, redistribución o remodelación de los perfiles naturales de las playas, debiendo respetarse en todo momento la dinámica sedimentaria y la evolución natural de los arenales.

No obstante, la Dirección de los trabajos podrá ordenar la ejecución de actuaciones puntuales de nivelación o redistribución superficial de arenas cuando resulten técnicamente necesarias para

segurtasuna, hondartzaren irisgarritasuna, dauden zerbitzu eta azpiegituren funtzionamendu egokia edo garbiketa-zerbitzuaren prestazio zuzena bermatzeko.

Jarduketa horiek gauzatu aurretik, nahitaezkoak diren baimen sektorial, ingurumeneko eta administrazio-baimen guztiak eskuratu beharko dira.

5.3.2. Lanen irismena

Jarduketek salbuespenezko izaera izango dute, eta hurrengo apartatuan definitutako helburuei eragiten dieten tokiko alterazioak zuzentzeko ezinbestekoak diren eremuetara eta bolumenetara mugatuko dira.

Lanek honako jarduketa hauek barne hartu ahal izango dituzte:

- Hondarra hondartza bereko eremuaren barruan modu puntualean birbanatzea.
- Irisgarritasuna oztopatzen duten edo ekipamendu eta azpiegituren funtzionamenduan eragina duten hondar-metaketak kentzea.
- Sarbideak, pasabideak eta joan-etorriko eremuak egokitzea.
- Sarbideetan agerian geratutako harriak edo erabiltzaileentzat arriskua sor dezaketen elementuak hondarrez estaltzea.
- Zerbitzuari atxikitako makineriarentzako sarbideak egokitzea, denboraleek lehendik zegoen topografia nabarmen aldatu dutenean.

Jarduketa horiek kontratuari atxikitako ohiko baliabideekin egingo dira. Kontratuak ez ditu barne hartzen hondartzak leheneratzeko lanak, kanpotik hondarra ekartzea, sedimentuen lekualdatze masiboak edo hareatzen morfologiaren funtsezko aldaketak.

5.3.3. Helburuak

Jarduketek helburu hauetakoren bat baino ez dute izango:

- Erabiltzaileen irisgarritasuna eta segurtasuna bermatzea.

garantizar la seguridad de las personas usuarias, la accesibilidad a la playa, la funcionalidad de los servicios e infraestructuras existentes o la correcta prestación del servicio de limpieza.

La ejecución de estas actuaciones quedará condicionada a la obtención previa de todas las autorizaciones sectoriales, ambientales y administrativas que resulten preceptivas.

5.3.2. Alcance de los trabajos

Las actuaciones tendrán carácter excepcional y se limitarán estrictamente a las zonas y volúmenes imprescindibles para corregir alteraciones localizadas que afecten a los objetivos definidos en el apartado siguiente.

Los trabajos podrán incluir:

- Redistribución puntual de arena dentro del mismo ámbito de playa.
- Retirada de acumulaciones de arena que dificulten la accesibilidad o afecten al funcionamiento de equipamientos e infraestructuras.
- Acondicionamiento de accesos, pasarelas y zonas de tránsito.
- Recubrimiento puntual de piedras afloradas o elementos que puedan generar riesgos para las personas usuarias en accesos.
- Adecuación de accesos para la maquinaria adscrita al servicio cuando los temporales hayan alterado significativamente la topografía existente.

Las actuaciones se ejecutarán mediante los medios ordinarios adscritos al contrato, sin que este incluya trabajos de regeneración de playas, aportes externos de arena, trasvases masivos de sedimentos ni modificaciones sustancias de la morfología de los arenales.

5.3.3. Objetivos

Las actuaciones deberán perseguir exclusivamente alguno de los siguientes objetivos:

- Garantizar la accesibilidad y seguridad de las personas usuarias.
- Mantener la operatividad de los accesos, pasarelas e infraestructuras del servicio.

- Sarbideen, pasabideen eta zerbitzuari lotutako azpiegituren funtzionamendua bermatzea.
- Denboraleek edo prozesu naturalek eragindako tokiko kalteak zuzentzea, baldin eta zerbitzua normaltasunez ematea zailtzen badute.
- Hondarraren metaketek hondartzari lotutako ondoko espazio publikoetan edo azpiegituretan eragin nabarmena izatea saihestea.

5.3.4. Ingurumen-baldintzak

Jarduketak esku-hartze minimoaren printzipioari jarraituz egingo dira, kostaldeko ekosistemetan sor daitekeen edozein eragin ahalik eta gehien murriztuz eta hondartza bakoitzaren ezaugarri geomorfologiko eta morfodinamikoak zainduz.

Enpresa esleipendunak lanak lanen Zuzendaritzak emandako jarraibideetara egokitu beharko ditu.

Enpresa esleipenduna izango da zabarkeriaz, modu desegokian edo jasotako jarraibideen aurka egindako jarduketen ondorioz eragindako kalte eta galeraren erantzule, dagozkion gainerako erantzukizunak alde batera utzi gabe.

5.4. PAPERONTZIAK JARRI ETA KUDEATZEA

5.4.1. Hornidura eta kudeaketa

Enpresa esleipendunak I. taldeko hondartzetan hondakinak gaika biltzea bermatzeko behar diren paperontziak hornitu, instalatu, mantendu eta hustuko ditu.

La totalidad de la maquinaria y vehículos incluidos en la relación de medios mínimos exigidos en el presente pliego (tractores con pala frontal, máquinas cribadoras limpiaplayas, pinzas cargadoras con rejilla, vehículos todoterreno tipo Gator 4x4, camiones o camionetas de caja abierta de 7,2 t y de 3,5 t MMA) deberán ser de primer uso, sin utilización previa a su afectación al presente contrato, quedando expresamente excluida la aportación de maquinaria o vehículos usados, reacondicionados o procedentes de otros contratos, servicios o titulares anteriores, con independencia de su fecha de fabricación, compra o matriculación.

El vehículo de coordinación de la persona encargada queda excluido de esta exigencia, pudiendo aportarse con una antigüedad máxima de 2 años.

La acreditación del cumplimiento de la exigencia de primer uso deberá realizarse de acuerdo a lo establecido en el PCAP.

Los medios materiales adicionales o de reserva que la empresa adjudicataria incorpore para la

gehitzen dituen baliabide material osagarriak edo erreserbakoak berriak edo erabiliak izan ahal izango dira, baldin eta baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Funtzionamendu-, kontserbazio- eta segurtasun-egoera ezin hobean egotea.
b) Aplikatzekoa den araudi tekniko, industria-segurtasuneko eta ingurumeneko araudia osorik betetzea.
c) Zerbitzua behar bezala ematea bermatzeko adinako geratzen den bizitza erabilgarria izatea.
d) Kontratuaren premietarako teknikoki egokiak izatea.
e) Erabiltzen diren bitartean kontratuari atxikita mantentzea.

8.2.3. Mantenua eta ordezkatzeak kontratuaren indarraldian

Enpresa esleipendunak kontratuari atxikitako baliabide material guztiak jarduteko moduan, erabilgarri eta funtzionamendu-egoera egokian mantendu beharko ditu kontratuaren indarraldi osoan. Horretarako beharrezkoak diren mantentze-lanak, konponketak eta, hala badagokio, hondatutako, istripua izan duten edo behar bezala jarduteko baldintzak galdu dituzten ekipamenduen ordezkapena bere kontura izango dira.

Baliabide horietako edozein erabiltezin bihurtzen bada, zaharkituta geratzen bada, zerbitzutik kentzen bada, konpondu ezin den matxura bat badu edo zerbitzua behar bezala emateko eskatzen diren baldintza teknikoak betetzeari uzten badio, enpresa esleipendunak hura ordeztu beharko du, bere kontura eta kalte-ordainik, konpentsaziorik edo prezioen berrikuspenik jasotzeko eskubiderik gabe, ezaugarri eta prestazio baliokide edo hobeak dituen beste baliabide batekin, zerbitzuaren jarraitutasuna eta gauzatze egokia bermatzeko moduko epean.

Kontratuari atxikitako edozein baliabide ordezkatzeak ezingo du ekarri gaitasun operatiboa, eskatutako errendimendua edo baldintza-agiri honetan edo esleipendunak bere eskaintzan hartutako konpromisoetan ezarritako zerbitzu-mailak murriztea.

Nahitaezko gutxieneko hornidurako makina eta ibilgailuen kasuan, lehen erabileraren betekizuna kontratuari hasieran egiten zaion atxikipenari baino ez zaio aplikatuko. Kontratuaren indarraldian ordezkapenik egin behar bada, ordezko baliabideak ordezkatutakoaren ezaugarri eta prestazio baliokide edo hobeak izan beharko ditu,

ejecución del servicio o en cumplimiento de los compromisos asumidos en su oferta podrán ser nuevos o usados, siempre que cumplan las siguientes condiciones:

a) Estar en perfecto estado de funcionamiento, conservación y seguridad.
b) Cumplir íntegramente la normativa técnica, de seguridad industrial y medioambiental que resulte de aplicación.
c) Disponer de una vida útil remanente suficiente para garantizar la correcta prestación del servicio.
d) Resultar técnicamente adecuados a las necesidades del contrato.
e) Mantenerse adscritos al contrato mientras sean utilizados para su ejecución.

8.2.3. Mantenimiento y reposición durante la vigencia del contrato

La empresa adjudicataria deberá mantener operativos, disponibles y en adecuadas condiciones de funcionamiento todos los medios materiales adscritos al contrato durante toda la vigencia del contrato, siendo a su cargo el mantenimiento, reparación y, en su caso, sustitución de los equipos que resulten dañados, siniestrados o que dejen de estar en condiciones adecuadas de funcionamiento.

Cuando cualquiera de dichos medios resulte inservible, quede obsoleto, sea retirado del servicio, sufra una avería irreversible o deje de reunir las condiciones técnicas exigidas para la correcta prestación del servicio, la empresa adjudicataria vendrá obligada a sustituirlo, a su costa y sin derecho a indemnización, compensación o revisión de precios, por otro medio de características y prestaciones equivalentes o superiores, en un plazo compatible con la continuidad y correcta ejecución del servicio.

La sustitución de cualquier medio adscrito al contrato no podrá suponer una disminución de la capacidad operativa, del rendimiento exigido ni de los niveles de servicio establecidos en el presente pliego o comprometidos por el adjudicatario en su oferta.

En el caso de la maquinaria y vehículos integrantes de la dotación mínima obligatoria, la exigencia de primer uso será aplicable exclusivamente a su adscripción inicial al contrato. En caso de sustitución durante la vigencia contractual, el nuevo medio deberá reunir características y prestaciones equivalentes o superiores a las del sustituido,

eta une oro zerbitzua emateko eskatzen den gutxieneko gaitasun operatiboa bermatu beharko du.

Esleipendunak bere eskaintzan konprometitutako eta kontratua esleitzeko baloratu diren baliabide osagarrien edo erreserbakoen kasuan, baliabide horiek kontratuaren indarraldi osoan mantendu beharko dira. Horiek ordezkatu ahal izango dira soilik ezaugarri eta prestazio baliokide edo hobeak dituzten beste baliabide batzuekin, betiere konprometitutako baliabideen kopurua edo eskainitako zerbitzu-mailak murriztu gabe.

Baliabide materialen edozein ordezkapenek lanen Zuzendaritzaren aldez aurreko eta berariazko baimena beharko du. Horretarako, enpresa esleipendunak baldintza-agiri honetan eskatzen diren baldintza teknikoak, segurtasunekoak, operatibotasunekoak eta egokitasunekoak betetzen direla egiaztatzeko beharrezko dokumentazioa aurkeztu beharko du.

8.2.4.Ez-betetzeak

Atal honetan ezarritako betekizunak ez betetzea, gutxieneko baliabide materialak ez aurkezteagatik, kontratuari benetan ez atxikitzeagatik edo lehen erabileraren baldintza ez betetzeagatik, kontratua ez betetzetzat joko da. Kasu horretan, Administrazio Baldintza Berezien Agiriaren 46. klausulan aurreikusitako zehapen-araubidea aplikatuko da, eta horrek ez du eragotziko, hala badagokio, kontratua suntsiarazteko egon daitezkeen arrazoiak aplikatzea.

8.3. BALIABIDE MATERIALEN ANTOLAKETA

Baliabide materialen plangintza, esleipena eta erabilera zerbitzuaren exekuzio-fase bakoitzaren ezaugarrietara, lanen programaziora eta hondartza edo jarduketa-eremu bakoitzaren behar espezifikoetara egokitu beharko dira.

Horretarako, enpresa lizitatzaileek beren eskaintza teknikoan plangintza operatiboaren proposamen bat aurkeztu beharko dute, gutxienez honako hauek jasoko dituena: giza baliabideen eta baliabide materialen banaketa, hondartza bakoitzean makineriaren eta lan-taldeen jarduera-maiztasuna, eta zerbitzua antolatzeko, koordinatzeko eta jarraitzeko irizpideak. Proposamen horrekin batera, proposatutako baliabideen nahikotasuna, eraginkortasuna eta garantizando en todo momento el mantenimiento de la capacidad operativa mínima exigida para la prestación del servicio.

En el caso de los medios adicionales o de reserva comprometidos por el adjudicatario en su oferta y que hubieran sido objeto de valoración para la adjudicación del contrato, éstos deberán mantenerse durante toda la vigencia contractual. Su sustitución únicamente podrá realizarse por otros medios de características y prestaciones equivalentes o superiores, sin que ello suponga una reducción de los medios comprometidos ni de los niveles de servicio ofertados.

Toda sustitución de medios materiales deberá contar con la autorización previa y expresa de la Dirección de los trabajos, para lo que la adjudicataria presentará la documentación acreditativa necesaria para verificar el cumplimiento de las condiciones técnicas, de seguridad, operatividad y adecuación exigidas en el presente pliego.

8.2.4.Incumplimientos

El incumplimiento de las exigencias establecidas en el presente apartado, por la no aportación de medios materiales mínimos, por su falta de adscripción efectiva al contrato o por el incumplimiento de la condición de primer uso, tendrá la consideración de incumplimiento del contrato, resultando de aplicación el régimen de penalidades previsto en la cláusula 46 del PCAP, sin perjuicio de las causas de resolución contractual que, en su caso, pudieran corresponder.

8.3. ORGANIZACIÓN DE MEDIOS MATERIALES

La planificación, asignación y utilización de los medios materiales deberá adecuarse a las características de cada fase de ejecución del servicio, a la programación de los trabajos y a las necesidades específicas de cada playa o zona de actuación.

A tal efecto, las empresas licitadoras deberán incluir en su oferta técnica una propuesta de planificación operativa que contemple, al menos, la distribución de medios humanos y materiales, la frecuencia prevista de actuación de la maquinaria y de los equipos de trabajo en cada playa, así como los criterios de organización, coordinación y seguimiento del servicio. Dicha propuesta deberá acompañarse de la documentación técnica y de los estudios organizativos que se estimen oportunos

kontratuaren xedeko prestazioetara egokitasuna justifikatzeko beharrezkotzat jotzen diren dokumentazio teknikoa eta antolaketa-azterlanak aurkeztu beharko dira.

Ekipoetako baten matxurak zerbitzua behar bezala ematea eragozten badu, zerbitzua gehienez hogeita lau (24) orduko epean berrabiarazi edo ordezkatu beharko da, matxura gertatu denetik zenbatzen hasita.

8.4. BALIABIDEEN MANTENTZEA ETA GARBIKETA

Enpresa esleipendunaren betebeharra izango da baliabide materialak egoera ezin hobean mantentzeko beharrezkoak diren kontserbazio-, mantentze- eta konponketa-lanak egitea.

Arreta berezia jarriko zaio baliabide horien itxura estetikoari; une oro garbi eta zainduak egon beharko dute. Horretarako, behar duten baliabideak konpondu eta margotu egingo dira. lanen Zuzendaritzak berariaz hala eskatzen badu, baliabideren baten egoera egokitzat jotzen ez bada, hura konpontzeko edo ordezteko eskatu ahal izango da.

8.5. INSTALAZIO FINKOAK

Enpresa esleipendunak kontratuaren esku jarriko ditu kontratatutako zerbitzuak kudeatzeko eta garatzeko instalazio finko egoki eta nahikoak. Instalazio horien kostu guztiak enpresa esleipendunaren kontura izango dira.

Instalazio finkotzat hartuko dira garajeak, tailerrak, biltegiak, bulegoak, langileak biltzeko zentroak eta materiala gordetzeko eta mantentzeko nahiz langileak biltzeko eta banatzeko erabiltzen diren gainerako instalazio guztiak, baita instalazio osagarriak ere (komunak eta aldagelak), indarrean dagoen Laneko Segurtasun eta Higieneari buruzko Erregelamenduan xedatutakoaren arabera.

9. KONTRATUAREN JARRAIPENA ETA KONTROLA EGITEKO INFORMAZIO-SISTEMAK

10.4. INFORMAZIO-SISTEMA

Kontratua gauzatzen hasten denetik eta indarrean dagoen bitartean, enpresa esleipendunak informazio-sistema bat izan beharko du,

para justificar la suficiencia, eficiencia y adecuación de los medios propuestos al alcance de las prestaciones objeto del contrato.

En el caso de avería de algún equipo que impida la correcta realización de un servicio, éste se deberá reanudar o sustituir en el plazo máximo de veinticuatro (24) horas desde la avería.

8.4. MANTENIMIENTO Y LIMPIEZA DE LOS MEDIOS

Serán obligación de la empresa adjudicataria los trabajos de conservación, mantenimiento y reparaciones para asegurar que los medios materiales se encuentren en condiciones óptimas de servicio.

Se prestará especial atención a las condiciones estéticas de estos medios, que deberán ofrecer, en todo momento, un aspecto limpio y cuidado. Así, se procederá a la reparación y pintado de aquellos medios que lo requieran. Previo requerimiento expreso de la Dirección de los trabajos, si las condiciones de algún medio no se consideran adecuadas, se podrá exigir su reparación o sustitución.

8.5. INSTALACIONES FIJAS

La empresa adjudicataria pondrá a disposición del contrato las instalaciones fijas apropiadas y suficientes para la gestión y desarrollo de los servicios contratados. Estas instalaciones serán por cuenta exclusiva de la adjudicataria.

Se considerarán instalaciones fijas los garajes, talleres, almacenes, oficinas, centros de concentración de personal y todas aquellas dependencias que sirvan para la estancia y mantenimiento del material, y para la concentración y distribución del personal, incluidas las instalaciones auxiliares (aseos y vestuarios), según lo dispuesto en el Reglamento vigente de Seguridad e Higiene en el trabajo.

9. SISTEMAS DE INFORMACIÓN PARA EL SEGUIMIENTO Y CONTROL DEL CONTRATO

9.1. SISTEMA DE INFORMACIÓN

La empresa adjudicataria deberá disponer, desde el inicio de la ejecución del contrato y durante toda su vigencia, de un sistema de información

kontratuaren xede den zerbitzuaren prestazioa kudeatzeko, jarraipena egiteko eta kontrolatzeko.

Sistemak operatibo eta eguneratuta egon beharko du beti, eta kontratua gauzatzeari buruzko informazioa erregistratu, biltegiratu, kontsultatu eta haren trazabilitatea egiteko aukera emango du.

Sistemak, gutxienez, informazio hau erregistratzeko eta gordetzeko aukera eman beharko du:

a) Egindako zerbitzuak, jarduketak eta lanak, honako hauek adierazita: data, ordutegia, hondartza edo jarduera-eremua, erabilitako giza baliabideak eta baliabide materialak, eta zerbitzua behar bezala gauzatu dela egiaztatzeko behar diren gainerako datuak.

b) Zerbitzua ematean izandako gorabeherak, gutxienez honako hauek barne: deskribapena, detekzioaren data eta ordua, kokapena, konpontzeko egindako jarduketak eta izapidetze-egoera.

c) Kontratuari atxikitako makineria eta ibilgailuak mantentzeko, konpontzeko, ordezteko edo zerbitzutik kentzeko eragiketak.

d) Lanen Zuzendaritzak emandako jarraibideak eta enpresa adjudikaziodunak horiek betez egindako jarduketak.

e) Kontratutik eratorritako betebeharrak betetzen direla egiaztatzeko beharrezkoa den beste edozein informazio.

Erregistratutako informazio guztia kontratuaren indarraldi osoan gorde beharko da, eta lanen Zuzendaritzak kontsultatzeko moduan egon beharko du, aplikatu beharreko araudiaren arabera eska daitezkeen kontserbazio-epeak alde batera utzi gabe.

10.5. MAKINEN ETA IBILGAILUEN GEOLOKALIZAZIOA

Kontratuari atxikitako nahitaezko gutxieneko hornidura osatzen duten ibilgailu eta makina guztiek geolokalizazio-sistema guztiz operatiboa izan beharko dute kontratua indarrean dagoen bitartean.

Gailu horietatik datorren informazioa aurreko apartatuan aurreikusitako informazio-sisteman integratu beharko da.

destinado a la gestión, seguimiento y control de la prestación del servicio objeto del contrato.

El sistema deberá mantenerse permanentemente operativo y actualizado, permitiendo el registro, almacenamiento, consulta y trazabilidad de la información relativa a la ejecución del contrato.

Como mínimo, el sistema deberá permitir registrar y conservar la siguiente información:

a) Los servicios, actuaciones y trabajos realizados, con indicación de la fecha, horario, playa o ámbito de actuación, medios humanos y materiales empleados y demás datos necesarios para acreditar la correcta ejecución del servicio.

b) Las incidencias producidas durante la prestación del servicio, incluyendo, al menos, su descripción, fecha y hora de detección, ubicación, actuaciones realizadas para su resolución y estado de tramitación.

c) Las operaciones de mantenimiento, reparación, sustitución o retirada del servicio de la maquinaria y vehículos adscritos al contrato.

d) Las instrucciones emitidas por la Dirección de los trabajos y las actuaciones realizadas por la empresa adjudicataria en cumplimiento de las mismas.

e) Cualquier otra información cuya llevanza resulte necesaria para acreditar el cumplimiento de las obligaciones derivadas del contrato.

Toda la información registrada deberá conservarse durante toda la vigencia del contrato y permanecer disponible para su consulta por la Dirección de los trabajos, sin perjuicio de los plazos de conservación que resulten exigibles conforme a la normativa aplicable.

9.2. GEOLOCALIZACIÓN DE MAQUINARIA Y VEHÍCULOS

Todos los vehículos y maquinaria integrantes de la dotación mínima obligatoria adscrita al contrato deberán disponer, durante toda la vigencia del mismo, de un sistema de geolocalización plenamente operativo.

La información procedente de dichos dispositivos deberá integrarse en el sistema de información previsto en el apartado anterior.

Gutxienez, sistemak honako hauek ezagutzeko eta kontsultatzeko aukera eman beharko du:

a) Ibilgailuaren edo makineriaren identifikazioa.
b) Kokapen geografikoa.
c) Posizio-erregistro bakoitzaren data eta ordua.
d) Zerbitzua ematen den bitartean egindako ibilbideak.
e) Kontratua gauzatzeko aldiari dagokion kokapenen historikoa.

Enpresa esleipenduna arduratuko da geolokalizazio-gailuen funtzionamendu zuzenaz, erregistratutako informazioaren osotasunaz eta bere funtzioa behar bezala betetzeari uzten dioten gailuak berehala konpontzeaz edo ordezteaz.

10.6. LANEN ZUZENDARITZAREN SARBIDEA

Kontratua indarrean dagoen bitartean, lanen Zuzendaritzak informazio-sistemarako sarbidea izango du, kontsulta-profil baten bidez, kontratuaren betearazpenaren jarraipena eta kontrola egin ahal izateko.

Sarbide horrek, gutxienez, aukera eman beharko du sisteman erregistratutako informazioa denbora errealean kontsultatzeko, kontratuari atxikitako makinen eta ibilgailuen kokapena eta ibilbideak ikusteko, jarduketen eta gorabeheren historikoa kontsultatzeko eta kontratu-betebeharrak betetzen direla egiaztatzeko behar den informazioa lortzeko.

Era berean, enpresa esleipendunak, lanen Zuzendaritzak hala eskatzen dionean, sisteman dagoen informazioa atera eta entregatu beharko du erabilera komuneko formatu elektronikoetan, Administrazioari kostu gehigarririk eragin gabe.

Sistemaren eskuragarritasuna, lanen Zuzendaritzaren sarbidea eta erregistratutako informazioaren osotasuna funtsezko betebeharrak dira kontratuaren exekuzioaren jarraipen eta kontrol egokia egiteko.

10.7. ALDIZKAKO TXOSTENAK

9.4.1.Lanen plangintza

Enpresa esleipendunak, hilabete bakoitza amaitu baino gutxienez bost (5) egun baliodun lehenago,

Como mínimo, el sistema deberá permitir conocer y consultar:

a) La identificación del vehículo o maquinaria.
b) Su posición geográfica.
c) La fecha y hora de cada registro de posición.
d) Los recorridos efectuados durante la prestación del servicio.
e) El histórico de posicionamiento correspondiente al período de ejecución del contrato.

La empresa adjudicataria será responsable del correcto funcionamiento de los dispositivos de geolocalización, de la integridad de la información registrada y de la inmediata reparación o sustitución de aquellos dispositivos que dejen de prestar correctamente su función.

9.3. ACCESO DE LA DIRECCIÓN DE LOS TRABAJOS

La Dirección de los trabajos dispondrá, durante toda la vigencia del contrato, de acceso al sistema de información mediante un perfil de consulta que le permita realizar el seguimiento y control de la ejecución del contrato.

Dicho acceso deberá permitir, como mínimo, la consulta en tiempo real de la información registrada en el sistema, la visualización de la ubicación y recorridos de la maquinaria y vehículos adscritos al contrato, la consulta del histórico de actuaciones e incidencias y la obtención de la información necesaria para verificar el cumplimiento de las obligaciones contractuales.

Asimismo, la empresa adjudicataria deberá facilitar, cuando sea requerida por la Dirección de los trabajos, la extracción y entrega de la información contenida en el sistema en formatos electrónicos de uso común, sin coste adicional para la Administración.

La disponibilidad del sistema, el acceso por parte de la Dirección de los trabajos y la integridad de la información registrada constituyen obligaciones esenciales para el adecuado seguimiento y control de la ejecución del contrato.

9.4. INFORMES PERIÓDICOS

9.4.1.Planificación de los trabajos

La adjudicataria entregará a la Dirección de los trabajos, con una antelación mínima de cinco (5)

hurrengo hilabeterako aurreikusitako lanen plangintza aurkeztuko dio lanen Zuzendaritzari. Geroago egiten diren aldaketak berehala jakinarazi beharko dira.

días hábiles antes de finalizar cada mes, la previsión de trabajos para el mes siguiente. Las modificaciones que se produzcan deberán comunicarse de forma inmediata.

9.4.2.Ohiko txostenak

9.4.2.**Informes ordinarios**

Enpresa esleipendunak hilero txosten bat aurkeztuko dio lanen Zuzendaritzari, udalerri bakoitzean bildutako hondakinen guztizko kopuruak adieraziz. Txosten horretan bereizita zehaztuko dira mareek ekarritako hondakinen eta hondartzako erabiltzaileek sortutako hondakinen pisuak, baita gaikako bilketarako paperontzietan bildutako hondakinak eta erabilitako gainerako bilketa-sistema edo aldaerak ere. Era berean, hondakinen helmuga egiaztatzen duen dokumentazioa erantsiko da (albaranak edo transferentzia-zentroaren edo baimendutako kudeatzailearen egiaztagiriak).

La adjudicataria entregará mensualmente a la Dirección de los trabajos un informe con las cantidades totales de residuos retirados en cada municipio, especificando pesos correspondientes al aporte de las mareas y a los propios usuarios, diferenciando los residuos recogidos en las papeleras de recogida selectiva y cualquier otra variante o sistema de recogida. Se incluirá documentación acreditativa del destino de los residuos (albaranes o justificantes del centro de transferencia o gestor autorizado).

Kontratuaren fase bakoitza amaitzean, enpresa esleipendunak egindako lanen memoria aurkeztuko du. Gutxienez honako hauek jasoko ditu: erabilitako eskulana (agiri bidez egiaztatua), erabilitako baliabide mekanikoak eta edukiontziak, hondartzaz hondartza banakatuta, hilabeteka bildutako hondakin-kantitateen grafikoak, gorabehera aipagarriak, ezohiko lanen argazkiak eta hurrengo denboraldietarako hobekuntza-proposamenak.

Al finalizar cada una de las fases del contrato, la adjudicataria presentará una memoria de los trabajos realizados, que incluirá como mínimo: mano de obra utilizada (acreditada documentalmente), medios mecánicos y recipientes empleados con distribución por playas, gráficas de cantidades de residuos recogidas mes a mes, incidencias relevantes, fotografías de trabajos extraordinarios y propuestas de mejora para futuras temporadas.

Era berean, esleipendunak kudeaketari buruzko urteko memoria bat osatuko du, eta urte bakoitzaren lehen hiruhilekoan aurkeztu beharko du. Memoria horretan, gutxienez, aurreko ekitaldiari buruzko informazio hau jasoko da:

- Egindako jarduerak
- Bildutako hondakinak, tipologiaren arabera.
- Gorabehera garrantzitsuak.
- Ezohiko jarduerak.
- Kontratuari atxikitako makineriaren egoera.
- Zerbitzua hobetzeko proposamenak.

Asimismo, la adjudicataria elaborará una memoria anual de gestión, que deberá presentar durante el primer trimestre de cada anualidad, que incluirá, al menos, la siguiente información relativa al ejercicio anterior:

- Actuaciones realizadas;
- Residuos recogidos por tipologías;
- Incidencias relevantes;
- Actuaciones extraordinarias;
- Estado de la maquinaria adscrita al contrato;
- Propuestas de mejora del servicio.

Memoria horiek, eta enpresa esleipendunak egin beharreko gainerako lan-dokumentuak, lurraldeko bi hizkuntza ofizialetan aurkeztu beharko dira: euskaraz eta gaztelaniaz.

Dichas memorias se presentarán en todo caso en los dos idiomas oficiales del territorio, euskara y castellano, al igual que otros documentos de trabajo que deba elaborar la adjudicataria.

9.4.3.Ezohiko txostenak

9.4.3.**Informes extraordinarios**

Denborale bakoitzeko, enpresa esleipendunak berariazko txosten bat prestatu beharko du. Bertan, jardunaldi bakoitzean egindako lanak eta egunero

La empresa adjudicataria deberá elaborar, para cada episodio de temporal, un informe específico en el que se detallen los trabajos ejecutados

kendutako hondakinen kopuruak jasoko dira, pisutan adierazita eta hondartzaka banakatuta.

Txosten horiek egiteko, dagokion lanen Zuzendaritzak zehaztuko du denborale bakoitzaren hasiera- eta amaiera-data.

durante cada jornada, así como las cantidades de residuos retiradas diariamente, expresadas en peso y desglosadas por playa.

A efectos de la elaboración de dichos informes, corresponderá a la Dirección de los trabajos competente determinar la fecha de inicio y de finalización de cada episodio de temporal.

10. HONDAKINEN KUDEAKETA ETA AZKEN HELMUGA

Enpresa esleipenduna izango da jarduketa-eremuaren barruan dauden hondartza eta gune guztietan dauden hondakin guztiak biltzeaz, kentzeaz eta garraiatzeaz arduratuko dena, haien jatorria, izaera, bolumena edo arriskugarritasuna edozein dela ere, II. eranskinean definitutako hondakinak barne.

Hondakinen kudeaketa baimendutako kudeatzaileen bidez baino ezingo da egin. Debekatuta dago baimendu gabeko edozein ezabaketa-modu, besteak beste hondakinak hondartzetan, laguntza-eremuetan edo horretarako legez gaituta ez dauden instalazioetan erretzea.

Hondakinak biltzeko, manipulatzeko eta garraiatzeko kostua enpresa esleipendunaren kontura izango da. GHKren altako kudeaketari lotutako tasa erakunde eskudunak hartuko du bere gain.

Apirilaren 8ko 7/2022 Legearen (Ekonomia zirkular baterako hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzkoa) arabera, hondartzak garbitzetik eratorritako hondakinak hiri-garbiketako hondakinen pareko etxeko hondakintzat hartzen dira. Beraz, toki-erakundeen eskumeneko hondakinak dira.

Gipuzkoako Foru Aldundiak udal-hondakinen kudeaketa jasangarritasunean oinarrituta sustatzen du, hondakinek dituzten baliabideak ahalik eta gehien aprobetxatzeko helburuarekin. Hondakinen kudeaketari buruzko Europar Batasuneko hierarkiaren arabera, lehentasuna eman behar zaie birziklatzeari eta balorizazioari (lehenik materialaren balorizazioari eta, ondoren, balorizazio energetikoari), eta azken aukera gisa utzi behar da geratzen den hondakin-zatia modu seguruan ezabatzea.

Gipuzkoako hondartzetako hondakinen bilketak bi alderdi nagusi ditu. Alde batetik, itsasoak olatuen eta mareen bidez hondartzara ekarritako hondakinak daude, itsasertzeko hondakinak

10. GESTIÓN DE RESIDUOS Y DESTINO FINAL

La empresa adjudicataria será responsable de la recogida, retirada y transporte de todos los residuos presentes en las playas y áreas incluidas en el ámbito de actuación, independientemente de su origen, naturaleza, volumen o peligrosidad, incluyendo los residuos definidos en el Anexo II.

La gestión de los residuos deberá realizarse exclusivamente mediante gestores autorizados. Queda prohibida cualquier forma de eliminación no autorizada, incluida la quema de residuos en playas, áreas de apoyo o instalaciones no habilitadas legalmente para ello.

El coste de recogida, manipulación y transporte de los residuos será por cuenta de la adjudicataria. La tasa asociada a la gestión en alta por parte de GHK será asumido por la entidad competente.

En virtud de la Ley 7/2022, de 8 de abril, de residuos y suelos contaminados para una economía circular, los residuos procedentes de limpieza de playas tienen la consideración de residuos domésticos asimilables a la limpieza urbana. Son, por tanto, residuos de competencia local.

La Diputación Foral de Gipuzkoa apuesta por una gestión de los residuos municipales orientada a la sostenibilidad, que intente aprovechar al máximo los recursos contenidos en los mismos. De acuerdo con la jerarquía comunitaria de gestión de los residuos, se deben priorizar los tratamientos de reciclaje, valorización (material, primero, y energética, en segundo lugar) y, en último lugar, la eliminación segura para la fracción restante de residuos.

La recogida de residuos de las playas de Gipuzkoa tiene dos vertientes diferenciadas. De una parte, están los residuos procedentes del mar y arrastrados a la arena por el oleaje y las mareas,

deiturikoak, neguko hilabeteetan ugariagoak izaten direnak. Bestetik, hondartzetako erabiltzaileek sortutako hondakinak daude, udako garaian nagusitzen direnak.

Itsasertzeko hondakinak biltzeko prozedurak lurra eta harea nahi gabe kentzea ahalik eta gehien minimizatu beharko du.

Enpresa esleipendunak kontratuaren esku jarriko ditu hondartzetan hondakinak gaika biltzeko behar diren baliabideak (paperontziak eta metaketa-edukiontziak), bereizitako hondakinaren kalitatea sustatzeko eta, hala badagokio, ondorengo tratamendua eta balorizazioa errazteko.

10.1. **ENPRESA ESLEIPENDUNAREN EGINKIZUNAK HONDAKINEN ARAUDI-ESPARRUAN**

Kontratu honen ondorioetarako, eta hondakinei buruzko legeria aplikatuz, Gipuzkoako Foru Aldundiari dagozkio honako eginkizunak:

- Hondakinen edukitzailearen papera, Hondakinak eta Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen arabera: "hondakinen ekoizlea edo hondakinak dituen beste pertsona fisiko edo juridiko bat"

- Hondakinen lekualdatzearen operadorearen papera, ekainaren 2ko 553/2020 Errege Dekretuaren arabera (Estatuaren barruko hondakinen lekualdatzea arautzen duena): “tratamendurako hondakinak lekualdatzea egin edo egiteko asmoa duen pertsona fisiko edo juridikoa, eta lekualdatzearen jakinarazpena egiteko betebeharra duena”. Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokzio izapide administratiboak egitea (CT, DI eta abar).

Kontratu honen ondorioetarako, eta hondakinei buruzko legeria aplikatuz, esleipendunari dagozkio honako eginkizunak:

- Hondakinak garraiatzeko papera, Hondakinak eta Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen arabera: "hondakinak hirugarrenen kontura profesionalki mugitzeko kudeaketa-eragiketa, enpresek beren jarduera

denominados “corte de orilla”, más predominantes durante los meses de invierno; y, de otra parte, los residuos generados por las personas usuarias de las playas, más abundantes en época estival.

El procedimiento de recogida del residuo correspondiente al corte de orilla minimizará la extracción involuntaria de tierras y arenas.

La Adjudicataria pondrá a disposición del contrato los medios necesarios para la recogida selectiva de los residuos en las playas (papeleras y contendores de acumulación), buscando promover una buena calidad del residuo segregado, de cara a su posterior tratamiento y valorización en su caso.

10.1. **ROLES DE LA ADJUDICATARIA EN EL MARCO NORMATIVO DE RESIDUOS**

En virtud de este contrato, y a efectos de la legislación en materia de residuos, serán funciones de la Diputación Foral de Gipuzkoa

- Papel de poseedor de residuos, de acuerdo a la Ley 7/2022, de 8 de abril, de residuos y suelos contaminados para una economía circular: “productor de residuos u otra persona física o jurídica que esté en posesión de residuos”

- Papel de operador del traslado, de acuerdo al RD 553/2020, de 2 de junio, por el que se regula el traslado de residuos en el interior del territorio del Estado: “la persona física o jurídica que pretende realizar un traslado o hacer que se lleve a cabo un traslado de residuos para su tratamiento y en quien recae la obligación de notificar el traslado”. Serán a cuenta de la Diputación Foral de Gipuzkoa las correspondientes gestiones documentales (CT, DI, etc).

En virtud de este contrato, y a efectos de la legislación en materia de residuos, serán funciones de la adjudicataria

- Papel de transportador de residuos, de acuerdo a la Ley 7/2022, de 8 de abril, de residuos y suelos contaminados para una economía circular: “operación de gestión consistente en el movimiento profesional de residuos por cuenta de terceros, realizada por empresas en el marco de su

profesionalaren esparruan egina, jarduera nagusia izan ala ez"

10.2. **HELMUGAKO INSTALAZIOAK**

Enpresa esleipenduna arduratuko da hondakinak lanen Zuzendaritzak zehazten duen tratamendu-instalaziora, transferentzia-estaziora edo kudeaketa-puntura garraiatzeaz. Oro har, Gipuzkoako hondartzetan bildutako hondakinen azken tratamendurako erabiltzen diren instalazioak honako hauek izan ohi dira:

- Elgoibarko Transferentzia Estazioa (errefus-frakzioa).
- CMG1, aldez aurretik baimenduta denborale-egoeretan (errefus-frakzioa).
- Legazpiko ontzien sailkapen-planta (ontzien frakzioa).
- Eskualdeko garbiguneak, dagokion mankomunitateak hala eskatzen duenean.

Nolanahi ere, lanen Zuzendaritzari dagokio hondakinak zein azken tratamendu-instalaziotara eraman behar diren zehaztea, eta aldaketa horiek ez dute kontratuaren prezioa aldatzeko eskubiderik emango. Hondakinak azken helmugara garraiatzeko erabiltzen diren ibilgailuek GHKk instalazioetara sartzeko eta hondakinak deskargatzeko ezartzen dituen baldintzak bete beharko dituzte. Baldintza horietan egiten diren aldaketek ere ez dute kontratuaren prezioa aldatuko.

10.3. **HONDAKINEN TRAZABILITATEA**

Enpresa esleipendunak kontratua gauzatzen den bitartean bildutako hondakinen erregistro eguneratua mantendu beharko du. Gutxienez, honako informazio hau gorde beharko da:

- Jatorrizko udalerria.
- Bilketa-data eta garraio-data.
- Hondakin mota eta frakzioa.
- Pisua edo bolumena (tonatan edo kilogramotan adierazia).
- Erabilitako garraio-bidea.
- Helmugako instalazioa.
- Baimendutako hondakin-kudeatzaileari egindako entregaren egiaztagiria.

Dokumentazio hori une oro egongo da lanen Zuzendaritzaren ikuskapenaren eskura. Bilketa-datuak hilero aurkeztuko dira, udalerrika eta frakzioka banakatuta.

actividad profesional, sea o no su actividad principal."

10.2. **INSTALACIONES DE DESTINO**

La adjudicataria se hará cargo del traslado de residuos a la instalación de tratamiento, estación de transferencia o punto de gestión que determine la Dirección de los trabajos. En términos generales, las instalaciones de tratamiento final de los residuos recogidos en las playas de Gipuzkoa suelen ser:

- Estación de Transferencia de Elgoibar (fracción resto)
- CMG1 - previa autorización en episodios de temporal (fracción resto)
- Planta de clasificación envases Legazpia (fracción envases)
- Garbigunes comarcales, en los casos que así lo requiera la Mancomunidad correspondiente.

En cualquier caso, corresponde a la Dirección de los trabajos determinar la instalación de tratamiento final a la que la adjudicataria deberá trasladar los residuos, sin que dichas modificaciones supongan una modificación en el precio del contrato. Los vehículos destinados al traslado final de los residuos deberán cumplir los requerimientos que al efecto establezca GHK para el acceso y descarga de residuos en cada caso, sin que modificaciones al respecto puedan incrementar el precio del contrato.

10.3. **TRAZABILIDAD DE LOS RESIDUOS**

La adjudicataria deberá mantener un registro actualizado de los residuos retirados durante la ejecución del contrato. Como mínimo deberá conservar la siguiente información:

- Municipio de procedencia.
- Fecha de recogida y fecha de transporte.
- Tipo de residuo y fracción.
- Peso o volumen (expresado en toneladas o kilogramos).
- Medio de transporte utilizado.
- Instalación de destino.
- Justificante de entrega al gestor autorizado.

La documentación deberá estar disponible para su inspección por la Dirección de los trabajos en cualquier momento. Los datos de recogida se

proporcionarán mensualmente por municipio y fracción.

10.4. **ADMINISTRAZIO-ERREGISTROA**

Esleipendunak jardueraren aurretiazko jakinarazpena egin beharko du, eta egoitza soziala duen autonomia erkidegoan Hondakinen Ekoizle eta Kudeatzailearen Erregistroan inskribatu beharko du. Inskripzio hori kontratua formalizatu eta gehienez hogeita hamar (30) eguneko epean aurkeztu beharko zaio lanen Zuzendaritzari.

Halaber, enpresa esleipendunak honako betebehar hauek izango ditu:

- Hondakinen kudeaketaren arduradunei hondakinak behar bezala tratatzeko eta ezabatzeko behar duten informazioa ematea.
- lanen Zuzendaritzari tratatutako hondakinei buruzko informazioa ematea.
- Hondakin arriskutsuak edo ingurumenari kalte egin diezaioketen beste hondakin batzuk desagertzen, galtzen edo ihes egiten badute, berehala jakinaraztea ingurumenaren arloko administrazio eskudunari.

11. **INGURUMENAREN BABESA ETA ITSASERTZEAN ESKU HARTZEKO IRIZPIDEAK**

Kontratua itsas-lehorreko jabari publikoaren babesa eta hondartzen nahiz haien ingurunearen ingurumen-, paisaia- eta natura-balioak zaintzearekin bateragarri den moduan gauzatu beharko da.

Hondartzaren ingurune naturaletan lanak ekosistema naturalak, bertako flora eta fauna eta habitaten dinamika naturala errespetatzen dituzten teknikak eta makineria erabiliz egingo dira; bereziki, duna-sistemak, padurak eta itsaslabarrak babestuko dira, hondartzaren eta haren ingurunearen izaera naturala ingurumenaren edo paisaiaren narriaduraren ondorioz gal ez dadin. Enpresa esleipendunak bere gain hartuko du eragindako ingurumen-kalteak konpontzeko erantzukizuna.

Badira zenbait hondartza, azalera txikia dutelako, erabilera-maila apala dutelako, sarbide zailak dituztelako, balio natural handia dutelako edo antzeko arrazoiengatik, gainerako hondartzetan

10.4. **REGISTRO ADMINISTRATIVO**

La Adjudicataria deberá realizar la comunicación previa de la actividad y la inscripción en el Registro de Productor y Gestor de Residuos de la Comunidad Autónoma donde tenga su domicilio social. Dicha inscripción deberá registrarse ante la Dirección de los trabajos en un plazo máximo de treinta (30) días desde la formalización del contrato.

Asimismo, la adjudicataria quedará también obligada a:

- Suministrar a los agentes responsable de la gestión de residuos la información necesaria para su adecuado tratamiento y eliminación.
- Proporcionar a la Dirección de los trabajos información sobre los residuos tratados.
- Informar inmediatamente a la administración ambiental competente en caso de desaparición, pérdida o escape de residuos peligrosos o aquellos que por su naturaleza o cantidad puedan dañar el medio ambiente.

11. **PROTECCIÓN AMBIENTAL Y CRITERIOS DE INTERVENCIÓN EN EL LITORAL**

La ejecución del contrato deberá realizarse de modo compatible con la protección del dominio público marítimo-terrestre y con la conservación de los valores ambientales, paisajísticos y ecológicos de las playas y sus entornos.

Para los entornos naturales de la playa, los trabajos se desarrollarán usando técnicas y maquinarias que respeten los ecosistemas naturales, la flora y fauna autóctonas, y la dinámica natural de los hábitats; en especial los sistemas dunares, marismeños y de acantilados, evitando la pérdida del carácter natural de la playa y su entorno, por degradación ambiental o paisajística, siendo por cuenta de la Adjudicataria la reparación de los daños ambientales que ocasionase.

Existen playas en las que, por su escasa superficie, bajo grado de ocupación, dificultad de accesos, alto valor natural, etc., no es oportuna o incluso posible la limpieza mediante los mismos sistemas, métodos

erabiltzen diren garbiketa-sistema, metodo eta makineria berberak erabiltzea komeni ez den edo ezinezkoa den. Kasu horietan, erabiliko diren baliabideak ingurunearen baldintza berezietara egokituko dira.

12. SEGURTASUNA ETA OSASUNA KONTRATUA GAUZATZEAN

Enpresa esleipendunak osorik bete beharko ditu azaroaren 8ko 31/1995 Legean, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzkoan, jasotako xedapenak, bai eta lege hori garatzen duten erregelamenduzko xedapen guztiak ere.

Garbiketa-lanek langileen segurtasunerako edo osasunerako arriskuak ekar ditzaketenez, enpresa esleipendunak bete beharko du uztailaren 18ko 1215/1997 Errege Dekretuan ezarritakoa, lan-ekipoak erabiltzeko segurtasun- eta osasun-baldintza minimoei buruzkoa, bai eta 2016ko martxoaren 9ko (EB) 2016/425 Erregelamenduan banakako babes-ekipoei buruz ezarritakoa ere.

13. KALITATEA ETA INGURUMENA KUDEATZEKO SISTEMAK

Kontratu honen barruan dauden hainbat hondartzak ingurumen-kudeaketako sistemak ezarrita eta ziurtatuta dituzte. Horien artean daude:

- EMAS: Zarauzko hondartza.
- ISO 14001: Debako Santiago eta Lapari hondartzak, eta Zumaiako Santiago eta Itzurun hondartzak.

Kontratuaren indarraldian sistema horiek beste hareatza batzuetan ere ezartzea planteatu ahal izango da. Enpresa esleipendunak lanen Zuzendaritzaren jarraibide guztiak bete beharko ditu, ingurumen- edo kalitate-baldintzei dagokienez, sistema horietatik eratorritako eskakizunak betetzeko, sistema horiek ziurtatuta egon ala ez.

14. KONTRATUAREN AURREKONTUA ETA ORDAINTZEKO MODUA

14.2. LIZITAZIOAREN AURREKONTUA

Kontratuaren iraupena kontuan hartuta (gehienez hamar (10) urte, luzapen posibleak barne), eta iraupen horrek eskaintza ekonomikoa egitean sor dezakeen ziurgabetasuna aintzat hartuta, enpresa

y maquinaria de limpieza que son utilizados en el resto de las playas. En estos casos, los medios a emplear se adecuarán a las condiciones particulares del entorno.

12. SEGURIDAD Y SALUD EN LA EJECUCIÓN DEL CONTRATO

La adjudicataria queda obligada al cumplimiento íntegro de las previsiones contenidas en la Ley 31/1995, de 8 de noviembre, de Prevención de Riesgos Laborales, y en cuantas disposiciones reglamentarias la desarrollen.

Dado que los trabajos de limpieza pueden entrañar riesgos para la seguridad o salud de los trabajadores, la adjudicataria deberá cumplir lo dispuesto en el Real Decreto 1215/1997, de 18 de julio, sobre disposiciones mínimas de seguridad y salud para la utilización de equipos de trabajo, y las previsiones del Reglamento (UE) 2016/425, de 9 de marzo de 2016, relativo a los equipos de protección individual.

13. SISTEMAS DE GESTIÓN DE CALIDAD Y MEDIO AMBIENTE

Varias playas incluidas en el contrato cuentan con sistemas de gestión ambiental implantados y certificados, entre ellos:

- EMAS: playa de Zarautz.
- ISO 14001: playas de Santiago y Lapari (Deba), y Santiago e Itzurun (Zumaia).

Podrá plantearse la implantación de estos sistemas en otros arenales durante la vigencia del contrato. La adjudicataria deberá ejecutar cuantas instrucciones reciba de la Dirección de los trabajos en relación con el cumplimiento de los requisitos ambientales o de calidad derivados de estos sistemas, certificados o no.

14. PRESUPUESTO DEL CONTRATO Y FORMA DE ABONO

14.1. PRESUPUESTO DE LICITACIÓN

Considerando la duración del contrato (hasta 10 años, incluyendo las posibles prórrogas) y la incertidumbre que esta duración puede suponer a la hora de realizar una oferta económica, se ha

lizitatzaileek eskainitako prezioak urteka baloratzea aurreikusi da. Horrela, denboran urrunen dauden urteetan lizitatzaileek beren gain hartzen duten arrisku handiagoa behar bezala islatzen da. Ondorioz, hiru tarte ezartzen dira, kontratuaren prezio-tarte desberdinekin, urterokoen arabera:

- 1. tartea: kontratuaren 1., 2. eta 3. urteei aplikatzekoa.
- 2. tartea: kontratuaren 4., 5. eta 6. urteei aplikatzekoa.
- 3. tartea: kontratuaren 7., 8. eta 9. urteei aplikatzekoa, eta, hala badagokio, luzapeneko urteari ere bai.

Aldi bakoitzerako gehieneko urteko aurrekontuak honako hauek izango dira (BEZa barne):

- 1. aldia: 2.266.912,88 €
- 2. aldia: 2.333.514,88 €
- 3. aldia: 2.711.983,00 €

Era berean, plegu honetako 5.2.3 apartatuan aurreikusitako ezohiko egoerak gertatzen direnean, lanen Zuzendaritzak enpresa esleipendunari ezohiko lanak egiteko agindu ahal izango dio, lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren dimentsionamenduan aurreikusitako urteko ordu-mugaraino.

Ezohiko lan horiek honako irizpide hauen arabera baloratuko dira:

- Langileak eta ustiapen-gastuak: ordainketa enpresa esleipendunak lanbide-kategoria bakoitzerako eta ustiapen-gastuetarako eskainitako orduko prezio unitarioak aplikatuz egingo da, kontratuaren hiru aldietako bakoitzean (aldi horri dagokion prezioa aplikatuta). Prezio unitario horiek aplikatzeko baldintza izango da lan horiek lanen Zuzendaritzarem ardura duen pertsonak berariaz agintzea.

- Kontratuan jasota ez dauden baliabide materialak, makineria, ekipoak edo hornidurak: enpresa esleipendunak aurkeztutako eta lanen Zuzendaritzak aldez aurretik onartutako aurrekontuaren arabera ordainduko dira. Aurrekontuak eskaintzan jasotako prezio unitarioen bidez baloratu daitezkeen baliabideak

contemplado la valoración de los precios ofertados por las licitadoras según anualidades, recogiendo así el mayor riesgo asumido por las licitadoras en este sentido para las anualidades más alejadas en el tiempo. Así, se establecen tres periodo con distintos rangos de precios del contrato según las anualidades:

- Periodo 1, aplicable a las anualidades 1ª, 2ª y 3ª del contrato.
- Periodo 2, aplicable a las anualidades 4ª, 5ª y 6ª del contrato.
- Periodo 3, aplicable a las anualidades 7ª, 8ª y 9ª del contrato y si fuera el caso a la posible anualidad de prórroga.

Los presupuestos máximos anuales para cada periodo serán los siguientes (IVA incl.):

- Periodo 1: 2.266.912,88 €
- Periodo 2: 2.483.701,64 €
- Periodo 3: 2.711.983,00 €

Asimismo, cuanto concurran situaciones extraordinarias de acuerdo a lo previsto en el apartado 5.2.3. de este Pliego, a Dirección de los trabajos podrá encargar a la adjudicataria la ejecución de trabajos extraordinarios hasta el límite de horas previsto en el dimensionamiento del presupuesto base de licitación.

Estos trabajos extraordinarios se valorarán conforme a los siguientes criterios:

- Personal y gastos de explotación: se abonará aplicando los precios unitarios por hora ofertados por la licitadora para cada categoría profesional y gastos de explotación en cada uno de los tres periodos del contrato (aplicando el precio correspondiente a dicho periodo). La aplicación de dichos precios unitarios quedará supeditada a que la ejecución de dichos trabajos sea expresamente ordenada por la persona responsable de la Dirección de los trabajos.

- Medios materiales, maquinaria, equipos o suministros no incluidos en el contrato: se abonarán conforme al presupuesto presentado por la adjudicataria y previamente aprobado por la Dirección de los trabajos. En caso de que el presupuesto incluya medios cuya valoración pueda obtenerse mediante precios unitarios

barne hartzen baditu, prezio unitario horiek izango dute lehentasuna proposatutako gainerako prezioen aurrean.

Ezohiko lan horiek egiteko eta ordaintzeko, lanen Zuzendaritzak berariaz agindu beharko du lan horiek egitea.

14.3. **ORDAINTZEKO MODUA**

Ordainketa hileko ziurtagirien bidez egingo da. Ziurtagiri horien zenbatekoa lanen Zuzendaritzak egiaztatu eta onartutako lanen arabera kalkulatuko da. Hileko bakoitzean, ziurtatu eta ordaindu beharreko gehieneko zenbatekoak ezingo du gainditu esleipenaren urteko prezioaren ehuneko hau:

ofertados, éstos prevalecerán sobre cualquier otro precio propuesto.

La ejecución y abono de estos trabajos extraordinarios procederá única y exclusivamente cuando la Dirección de los trabajos ordene expresamente su realización.

14.2. **FORMA DE ABONO**

El abono se realizará mediante certificaciones mensuales cuyo importe se calculará en base a los trabajos realizados que hayan sido sancionados por la Dirección de los trabajos. En cada mensualidad, el importe máximo a certificar y abonar no podrá superar el porcentaje del precio anual de adjudicación que se establece a continuación:

HILABETEA / MES	%
Urtarrila / enero	6,5
Otsaila / febrero	6,5
Martxoa / marzo	6,5
Apirila / abril	9
Maiatza / mayo	6,5
Ekaina / junio	11
Uztaila / julio	11
Abuztua / agosto	11
Iraila / septiembre	11
Urria / octubre	7
Azaroa / noviembre	7
Abendua / diciembre	7

Ezohiko lanak ohiko lanetatik bereizita ziurtatuko dira eta bereizita fakturatuko dira. Horien zenbatekoa aurreko apartatuan ezarritako balorazio-irizpideen arabera zehaztuko da, eta lanen Zuzendaritzak lanak benetan egin direla egiaztatu eta dagokion faktura onartu ondoren ordainduko da.

El abono de los trabajos extraordinarios se realizará previa certificación separada de los trabajos efectivamente ejecutados y se facturarán separadamente. Su importe se determinará aplicando los criterios de valoración establecidos en el apartado anterior y se abonará una vez que la Dirección de los trabajos haya certificado la efectiva ejecución de los trabajos y conformado la correspondiente factura

Gipuzkoako Foru Aldundiak beretzat gordetzen du apartako lan horietarako aurreikusitako zuzkidura ekonomikoa osorik edo zati batean gauzatzeko eskubidea, eta horrek ez du inolako eskubiderik sortzen esleipendunaren alde, gauzatu gabeko zenbatekoengatik.

La Diputación Foral de Gipuzkoa se reserva el derecho a ejecutar total o parcialmente la dotación económica prevista para estos trabajos extraordinarios, sin que ello genere derecho alguno a compensación a favor de la adjudicataria por las cantidades no ejecutadas.

Faktura guztiak lanen Zuzendaritzak aldez aurretik onartu beharko ditu.

Todas las facturas deberán ser previamente conformadas por la Dirección de los trabajos.

Donostia / San Sebastián, a fecha de firma del informe

INGURUMENEKO GOI-MAILAKO TEKNIKARIA
TÉCNICO SUPERIOR DE MEDIO AMBIENTE

NEREA EGIA LARRINAGA - 72498843Z
Digitalki sinatuta norengandik: NEREA EGIA LARRINAGA - 72498843Z
Data: 2026.09.17 09:56:17 +02'00'

Fdo.: Nerea Egia Larrinaga

HONDAKINEN ETA HONDARTZEN UNITATE-ARDURADUNA
RESPONSABLE UNIDAD RESIDUOS Y PLAYAS

JOSE LUIS ANDUEZA ZABALA - 15960717M
Digitalki sinatuta norengandik: JOSE LUIS ANDUEZA ZABALA - 15960717M
Data: 2026.09.17 10:24:19 +02'00'

Fdo.: Jose Luis Andueza Zabala

O.E. TRANTSIZIKO EKOLOGIKOKO ZERBITZUBURUA
VºBº JEFE DEL SERVICIO DE TRANSICIÓN ECOLÓGICA,

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Digitalki sinatua:
Firmado digitalmente:
IÑAKI PUGA PUEYO - 15993275H
2026.09.21 15:02:37 +02'00'

Fdo.: Iñaki Puga Pueyo

ANEXO I.- ÁMBITOS DE ACTUACIÓN

PLANOS

